

# XEDAPEN OROKORRAK

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 2813

*66/2024 DEKRETUA, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko dena.*

Nekazaritza Politika Erkidea 1962an sortu zenetik, politika hori nekazaritza sektorearen erronketara eta herritarren beharrian berrietara egokitu da, zenbait erreformaren bitartez.

Nekazaritza Politika Erkidearen azken erreforma 2021eko abenduan amaitu zen, hiru erregelamendu argitaratuta. Erregelamendu horiek, ordezeko eta betearazpeneko erregelamenduekin batera, 2023-2027 aldian Nekazaritza Politika Erkidea aplikatzeko oinarriak finkatzen eta arautzen dituzte, egon daitezkeen luzapenak gorabehera.

Alde batetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estratergiokoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen (NPEaren plan estratergiakoak) –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dituena.

Bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena.

Eta, azkenik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2117 Erregelamendua (EB), honako hauek aldatzen dituena: 1308/2013 Erregelamendua (EB), nekazaritza-produktuen merkatu antolakunde erkidea sortzen duena; 1151/2012 Erregelamendua (EB), nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-araubideei buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 251/2014 Erregelamendua (EB), mahastizaintza eta ardogintzako produktu aromatizatuen adierazpen geografikoen definizio, deskribapen, aurkezpen, etiketatu eta babesari buruzkoa; eta 228/2013 Erregelamendua (EB), nekazaritza sektorean Europar Batasuneko eskualde ultraperiferikoen aldeko neurri espezifikokoak ezartzen dituena.

Nekazaritza Politika Erkide berriak, 2023tik 2027ra bitartean aplikatuko denak, aurrekoaren funtsezko elementuak dauzka, baina baldintza jakin batzuk betetzean oinarritutako politika izatetik, hiru helburu nagusirekin lotutako emaitza zehatz batzuk lortzera bideratutako politika izatera pasatuko da: nekazaritza sektore adimentsua, lehiakorra, erresilientea eta dibertsifikatua sustatzea, elikagaien epe luzeko segurtasuna bermatuko duena; ingurumenaren babesa indartzea eta babestea, biodibertsitatea eta klimaren aldeko ekintza barne, eta Europar Batasuneko ingurumen- eta klima-helburuak lortzen laguntzea, tartean Parisko Itunaren arabera hartutako konpromisoak; eta landa-inguruetako sare sozioekonomikoa indartzea.

Helburu orokor horiek, era berean, bederatzi helburu espezifikotan banakatzen dira, jasangarritasunaren hiru zutabeetan oinarrituta, eta zeharkako helburu komun batekin osatuta: nekazaritza sektorea modernizatzea landa-inguruetan, ezagutzaren, berrikuntzaren eta digitalizazioaren bidez.

Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 aldiko berrikuntza nagusietako bat da Batasuneko estatu guztiek eduki behar dutela Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategiko bakarra, eta bertan Nekazaritza Politika Erkidearen helburuak eta Europako Itun Berdearen xedea lortzeko laguntzarako esku-hartzeak agertu behar direla.

Ildo horretan, hiru urte inguruko lan-prozesu baten ondoren, 2022ko abuztuaren 31n, Europako Batzordeak Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa onartu zuen C (2022) 6017 Erabakiaren bidez. Lan-prozesu hori Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak koordinatu zuen, eta autonomia-erkidegoek parte hartu zuten, bai beharren diagnostikoaren eta analisiaren hasierako fasean, bai esku-hartzeen estrategia eta diseinua artikulatzeko ondoko fasean.

Plan horretan jaso dira bai lehen zutabearen esparruan programatutako laguntzarako esku-hartzeak (zuzeneko eta sektoreko laguntzak, NBEF funtsak finantzatutakoak), Estatuan zuzenean aplikatuko direnak, bai bigarren zutabeko landa-garapenerako esku-hartzeak (LGENF funtsak eta beste batzuek finantzatuak), autonomia-erkidegoetan abiarazi eta garatzen direnak, kasu bakoitzean ezarritako eskualde-berezitasunekin eta autonomia-erkidego bakoitzak lurraldean programatu dituen esku-hartzeen eta aurrekontuen arabera. Horren ondorioz, EAeren kasuan, zuzeneko ordainketez eta NBEF funtseko esku-hartze sektorialez gainera, landa-garapenerako 18 esku-hartze programatu dira (LGENF), batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eskumenekoak eta beste batzuk foru-aldundien eskumenekoak.

Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa onartu ondoren, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak arau-sorta zabala prestatu du, Plana behar bezala eta eraginkortasunez ezarri ahal izateko. Arau-sorta hori kontuan hartu beharko da Batasunaren araudiarekin batera.

Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen planteamendu berriaren arabera, plan estrategiko bakarra egon behar da, eta bertan bildu behar dira NBEFaren zuzeneko laguntzak eta esku-hartzeak, batetik, eta LGENFaren konturako landa-garapenerako laguntzak, bestetik. Horregatik, ekimena proposatzen duen sailak hausnarketa egin du eta erabaki du Nekazaritza Politika Erkidearen bi zutabeak uztartzen dituen dekretua egitea, eta, horretarako, orain arte sakabanatuta egon diren arauak (xedapen indargabetzaileetan zehazten direnak) indargabetu behar dira.

Horregatik, dekretu honen xedea da arauak ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu ahal izateko Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa, Europako Batzordeak C (2022) 6017 Erabakiaren bidez onartua 2022ko abuztuaren 31n.

Beste alde batetik, LGENFaren konturako landa-garapenerako laguntzak landa-eremuen garapen-mailaren arabera ematen dira. Horren ildotik, Landa Ingurunearen Garapeneraren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 7. artikulua ezartzen duenaren arabera, landa-eremuak identifikatuko dira, biztanleriarekin, nekazaritza-jarduerarekin eta biztanleria-dentsitatearekin lotutako parametroetan oinarrituta, besteak beste. 3. apartatua xedatzen da landa-eremuen katalogazioa eta parametrizazioa erregelamendu bidez arautuko direla. Horixe bera da dekretu honen xedea: landa-eremuen karakterizazioa.

Dekretu hau egiteko kontuan hartu dira Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legea eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua. Ildo horretan, Nekazaritza Politika Erkidearen programen esparruan, ekintza positiboak ezartzen jarraitu behar da, nekazaritza-sektorean eta landa-ingurunean dauden genero-arrakalak murrizteko.

Arau hau bat dator Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 4. artikuluan xedatzen diren arauen kalitatearen printzipioekin.

Hori dela eta, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko maiatzaren 28an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

## XEDATZEN DUT:

### I. KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. ATALA

##### XEDEA

###### 1. artikulua.– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea da, batetik, arauak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu ahal izateko Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa (aurrerantzean, NPEPE), Europako Batzordeak C (2022) 6017 Erabakiaren bidez onartua 2022ko abuztuaren 31n. Bi egoitza elektronikotan argitaratuta dago: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoa eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren egoitza elektronikoa.

2.– Bestetik, dekretu honen xedea da, baita ere, landa-eremuen karakterizazioa, Landa Inguru-nearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 7. artikulua xedatzen duena betetzeko.

3.– NPEPEa EAEn aplikatzean, dekretu honetan xedatzen dena ez ezik, Batasunaren araudia eta Estatuko oinarrizko araudia (I. eranskina) edo horren ordezkia edo hori osatzen duena ere bete beharko dira.

##### 2. ATALA

#### KOORDINAZIO- ETA GOBERNANTZA-EGITURAK

2. artikulua.– Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoaren gobernantza-organoak.

1.– Dekretu honek koordinazio- eta gobernantza-sistema bat arautzen du honako hauei dagokienez:

a) Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (aurrerantzean, NPEPE), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituena (NPEaren plan estrategikoak) –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dituena (aurrerantzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua); honako hauek dira:

1.– NPEPEaren Kudeaketa Agintaritza Erregionala EAEn.

2.– Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzorde Erregionala EAEn.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren finantzaketa –Nekazaritza Politika Erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa da, eta 1306/2013 (EB) erregelamendua indargabetzen du– (aurrerantzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamendua); organo hauek osatzen dute:

- 1.– Agintaritza eskuduna.
- 2.– Erakunde ordaintzailea.
- 3.– Ziurtapen-erakundea.

2.– Lehen zutabeko eta bigarren zutabeko eremuen arteko lankidetzazuzena eta eraginkorra bermatzeko eta EAeko erakunde ordaintzailearen egitekoak gauzatzeko, erakunde ordaintzailearen koordinazio-batzordea sortzen da, zeinak lantalde gisa jardungo baitu, azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.– Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoaren gobernantza-organoak.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduak ezartzen dituen gobernantza-erakundeei dagokienez, eta abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuak, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen Euskal Autonomia Erkidegoko antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea ezartzen dituenak (aurrerantzean, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretua), xedatzen duenarekin bat etorritz, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek dira NPEPEaren esparruko gobernantza-organoak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko organoak–:

- a) Agintaritza eskuduna: nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen sailaren titularra.
- b) Erakunde ordaintzailea: nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen saila. Erakunde ordaintzailearen gaineko ardura nekazaritza eta abeltzaintzaren arloetako eskumena duen zuzendaritzaren titularrak dauka.
- c) Ziurtapen-erakundea: ekonomiaren eta ogasunaren gaineko eskumena duen saileko Kontrol Ekonomikorako Bulegoa.

2.– Erakunde horietako bakoitzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduak eta abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuak –Espainian Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren eta NBEF eta LGENF Europako nekazaritza-funtsen gobernantza arautzen duena (aurrerantzean, abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretua)– esleitzen dizkieten eginkizunak beteko ditu, bai eta abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan aurreikusitakoak ere.

4. artikulua.– NPEPEaren Kudeaketa Agintaritza Erregionala EAEn.

Nekazaritza-politika erkidearen arloan eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko saila izendatzen da NPEPEaren Kudeaketa Agintaritza Erregional gisa EAEn, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 123.2 artikuluan ezarritako eta abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren

3. artikuluan zehaztutako funtzioak aplikatuz eta betez. Landa-garapenaren arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularrak bere gain hartzen du NPEPEa EAEn kudeatuko duen agintaritza erregionalaren ardura.

5. artikulua.– EAeko Kudeaketa Agintaritza Erregionalaren Koordinazio Batzordea.

1.– EAeko Kudeaketa Agintaritza Erregionalaren Koordinazio Batzordea sortzen da, lantalde gisa, lehen zutabeko (zuzeneko laguntzak eta merkatu-neurriak; osorik finantzatuak Nekazaritza Bermatzeko Europako Funttsaren –NBEF– kontura) eta bigarren zutabeko (landa-garapenerako laguntzak; besteak beste, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren –LGENF– kontura finantzatuak) eremuen arteko lankidetzaz zuzena eta eraginkorra izatea bermatzeko eta EAeko kudeaketa-agintaritza erregionalaren egitekoak gauzatzeko.

2.– EAeko Kudeaketa Agintaritza Erregionalaren Koordinazio Batzordea honako hauek osatuko dute:

- a) NBEFaren zuzeneko ordainketen ardura duen zuzendaritzaren ordezkari bat.
- b) NBEFaren esku-hartze sektorialen ardura duten zuzendaritzen ordezkari bat.
- c) LGENFaren landa-garapenerako esku-hartzeen ardura duten zuzendaritzen ordezkari bat.
- d) Erakunde ordaintzailearen kontabilitate-funtzioaz arduratuko den pertsona bat.
- e) Foru-aldundi bakoitzean nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren ordezkari bat.

3.– Koordinazio-batzordea kudeaketa-agintaritzaren ardura duen pertsonaren ekimenez bildu ahal izango da, edota batzordeko edozein kideren ekimenez, eta bileretara kasuan kasuko gaiaren arabera bidezkotzat jotzen diren kudeaketa-organoak edo beste administrazio-unitate batzuk edo bestelako erakundeak gonbidatu ahal izango dira.

4.– Batzorde horren eginkizun nagusia izango da Euskadin NPEPEa ezartzean sortzen diren gorabeherak aztertzea eta neurri zuzentzaile egokiak proposatzea, honako gai hauei dagokienez:

a) Aplikazio informatikoen azterketa, kontrola eta jarraipena egitea, NPEPE laguntzen kudeaketa-eskakizunetara egokitzen direla bermatzeko.

b) Laguntza-deialdien azterketa, kontrola eta jarraipena.

c) Adierazleen eta errendimenduari buruzko bi urtez behingo azterketak egiteko beharrezkoa den bestelako informazioaren tratamendua.

d) Errendimenduaren esparruan lortutako emaitzen ondoriozko ekintza-planak egitea, hala dagokionean.

e) Eskualde-mailan egin beharreko ebaluazio-ekintzak.

f) Euskadiko NPEPEaren komunikazioa eta publizitatea, eta Euskadin NPEPEa ezartzeari buruzko webgunea mantentzea eta eguneratzea.

g) Kudeaketa-agintaritzari egotz dakiokeen beste edozein gai, abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren 3. artikuluaaren arabera, baldin eta NPEPEaren esparruan batzordea osatzen duten administrazio-organoen arteko koordinazioa eskatzen badu.

5.– Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea betez, artikulua honetan araututako koordinazio-batzordeko kideei nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatuko zaie.

6. artikulua.– Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzorde Erregionala EAEn.

1.– Nekazaritza-politika erkidean eskumena duen sailari atxikitako kide anitzeko organo gisa, EAeko Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoaren Jarraipen Batzorde Erregionala sortzen da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 124.5 artikuluekin eta abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren 5.6 artikuluekin bat etorriz.

Batzorde horrek gainbegiratuko du nola aplikatzen diren plan estrategikoaren elementu erregionalak, eta horren inguruko informazioa eman beharko dio Jarraipen Batzorde Nazionalari.

2.– Aurreko apartatuan sortutako batzordearen osaera landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularraren ebazpen baten bidez zehaztuko da, EAeko kudeaketa-agintaritza erregionalaren arduradun gisa. Osaera horretan, honako hauen arteko ordezkariak orekatua bermatuko da:

- a) ingurumenaren eta klimaren arloko eskumena duten agintaritza publikoak;
- b) solaskide ekonomikoak eta sozialak, nekazaritza sektorearen ordezkariak barnean direla;
- c) sozietate zibila ordezkatzeko duten erakundeak eta, hala dagokionean, gizarte inklusioa, oinarrizko eskubideak, genero-berdintasuna eta bereizkeriarik eza sustatzeko ardura duten erakundeak.

3.– Jarraipen Batzordeko kide bakoitzak boto bat izango du. Aldiz, noizean behin bileretara aholkulari gisa doazen pertsonak ez dute botozik izango.

4.– Batzordearen eginkizunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 124. artikuluen 3. eta 4. apartatueta ezarritakoak dira. Eginkizun horiek NPEPEari buruzkoak izango dira beti, EAeren esparruan. Hain zuzen ere, batzordeak irizpenak eman beharko ditu honako gai hauei buruz:

- a) EAEn programatutako landa-garapeneko esku-hartzeen bidez (LGENF) finantzatutako jardunak hautatzeko irizpideak.
- b) EAeko urteko errendimenduari buruzko txostena.
- c) NPEPEan EAerako ezarritako zehaztapenak edo NPEPEko zehaztapen orokor batzuk aldatzeko proposamenak, kudeaketa-agintaritza nazionalari helarazi nahi zaizkionak.

5.– Jarraipen Batzordea deitzeko, bilerak egiteko, erabakiak hartzeko eta aktak bidaltzeko, aurrez aurre nahiz urrutitik jardun ahalko da. Hala ere, urtean behin gutxienez, bilera presentziala izango da. Batzordeak NPEPEaren aurrerabidean eragina duten gai guztiak aztertuko ditu, helburuak lortzeko. Kudeaketa-agintaritzak Jarraipen Batzordearen barne araudia eta irizpenak egin eta argitaratuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren Egoitza Elektronikoan.

6.– Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea betez, artikulua honetan araututako koordinazio-batzordeko kideei nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea bermatuko zaie.

7.– Batzordeak urteko kudeaketa- eta jarduera-memoria bat egin beharko du, eta Gardena gardentasun-atarian argitaratu (<https://www.gardena.euskadi.eus/gardentasuna>), «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren administrazio instituzionaleko kide anitzeko organoentzako jarduera-planaren» 9.1.8 apartatuan xedatutakoaren arabera, zeina Gobernu Kontseiluaren 2020ko uztailaren 7ko erabakiaren bidez onartu baitzen.

8.– Aurreko apartatuak aipatzen duen jarduera-planaren 9.1.1 apartatuan xedatutakoaren arabera, sailak alta emango dio organoei eta kideei buruzko informazioari, eta informazio hori eguneratuta izango du «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko kide anitzeko organoen kudeaketa sisteman (<https://elkarlan.sharepoint.com/sites/102-Berrikuntza/PEGIP2020/proy6.4/SitePages/Sistema-de-Gestión-de-los-ÓrganosColegiados.aspx/>)».

7. artikulua.– Esku-hartzeak kudeatzeko organoak.

1.– Organo kudeatzaileak izango dira nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saileko administrazio-unitateak eta foru-aldundietakoak eta NPEPEan EAE-rako programatutako laguntzarako esku-hartzeak kudeatzeko ardura duten erakundeetakoak.

2.– Laguntzarako esku-hartzeak kudeatzeko, espedienteak artatu behar dira eta behar diren kontrolak aplikatu behar dira.

3.– Kudeaketa-agintaritza erregionalari edo erakunde ordaintzaileari dagozkion eginkizunak ondo egiteko, organo kudeatzaileek une oro lagundu beharko diete bi organo horiei, eta NPEPEaren inguruan eskatzen duten informazio guztia eman beharko diete.

4.– Horretarako, laguntzak kudeatzeko programa informatikoak plan estrategikoaren beharri-zanetara moldatu beharko dira, lortu behar baita programa horien bidez behar diren datu guztiak eman ahal izatea, laguntzarako esku-hartzeen errendimendua aztertzeko eta jarraipena egiteko. Nolanahi ere, NPEPEaren programazioaren aldiaren informazioa eta datuak eskatu ahal izango dizkiete kudeaketa-agintaritzak zein erakunde ordaintzaileak.

### 3. ATALA

#### EAE-N PROGRAMATUTAKO LAGUNTZARAKO ESKU-HARTZEAK

8. artikulua.– Esku-hartzeak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan dirulaguntzen araubidean egin daitezkeen esku-hartzeak, NBEF zein LGENF funtsetakoak, NPEPEaren 5. apartatuan jasotakoak dira. Plana Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikokoan argitaratu da (<https://www.euskadi.eus/web01-a1pac/eu/>). Gainera, LGENFaren konturako landa-garapeneko esku-hartzeetarako, autonomia-erkidego bakoitzean programatutako LGENFaren konturako elementu erregionalei buruzko zehaztasun guztiak ematen dituen deskribapen-fitxa bat dago eskuragarri (aurrerantzean, «esku-hartzeen fitxa»).

2.– Aplikatu beharreko araudiaren arabera esku-hartzeei dagozkien espezifikotasunak alde batera utzi gabe, esku-hartze guztietan kontuan hartu beharko da atal honetan xedatutakoa.

9. artikulua.– NBEFaren konturako esku-hartzeak.

Dekretu honen laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoa eragotzi gabe, EAEn aplikatzeko programatutako NBEFaren konturako esku-hartzeak IV. eta V. kapituluetan arautzen dira, eta honako hauek dira:

a) Esku-hartzeak zuzeneko ordainketa gisa:

1.– Jasangarritasunerako errentarako oinarritzko laguntza (JEOL).

2.– JEOLen osagarria den birbanaketa-laguntza.

3.– Nekazari gazteentzako errentarako laguntza osagarria.

4.– Klimaren eta ingurumenaren aldeko araubideak (eko-araubideak).

5.– Nekazariei lotutako zuzeneko ordainketak.

b) Esku-hartze sektorialak:

1.– Frutak eta barazkiak.

2.– Erlezaintza.

3.– Ardoa.

10. artikulua.– LGENFaren eta Estatuko finantzaketa osagarriaren kontura modu bateratuan finantzatutako esku-hartzeak.

1.– Dekretu honen laugarren xedapen gehigarrian ezartzen dena eragotzi gabe, EAEn aplikatzeko programatutako LGENFaren konturako esku-hartzeak 2. eta 3. apartatuetan zehazten dira. Horiek abian jartzeko kontuan hartuko da nola dauden banatuta eskumenak foru-aldundien eta erakunde komunen artean. Esku-hartze horiek VI. kapituluaren arautzen dira, eta EAerako ezarritako zehaztapenak bete behar dituzte; hain zuzen ere, zehaztapen horiek NPEPEaren eranskinetako fitxa erregionaletan daude jasota.

2.– Foru-aldundiek honako esku-hartze hauek garatu eta egikaritu behar dituzte:

a) Nekazaritza-ingurumeneko konpromisoak: ekoizpen integratua.

b) Nekazaritza-ingurumeneko konpromisoak: labore jasangarriak.

c) Nekazaritza-ingurumeneko konpromisoak: larreen sustapen/kudeaketa jasangarria.

d) Nekazaritza-ingurumeneko konpromisoak: erlezaintza.

e) Nekazaritza-ingurumeneko konpromisoak: nekazaritza ekologikoa.

f) Nekazaritza-ingurumeneko konpromisoak: baliabide genetikoaren kontserbazioa.

g) Oztopo naturalak dituzten eremuetarako laguntzak.

h) Nekazari gazteak ezartzea.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek honako esku-hartze hauek garatu eta egikaritu behar ditu:

a) Nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edota garatzeko inbertsioak.

b) Basogintzako ekoizpenerako inbertsioak.

c) Landaguneetako oinarritzko zerbitzuetako inbertsioak, ekoizpenekoak ez direnak.

d) LEADER.

e) Kalitate-araubideetan parte hartzea.

f) Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak sustatzea kalitate-araubideetan.

g) Nekazaritzaren Berrikuntzarako Europako Elkarteko (EIP-Agri) talde operatiboen arteko lan-kidetza.



- h) EIP-Agri elkartearekin lotuta ez dauden berrikuntzarako taldeen arteko lankidetzak.
- i) Ekoizle elkarteak edo taldeak sustatzeko lankidetzak.
- j) Ezagutzen transferentzia, eta trebakuntza- eta informazio-jarduerak.
- k) Kudeaketa-agintaritzaren laguntza teknikoa.

#### 11. artikulua.– Administrazioarekiko harremana.

1.– Agintari eskudunen aurrean jarraitutako administrazio-prozedura guztietan, NPEaren laguntzen onuradun diren pertsona fisiko edo juridikoek edo nortasun juridikorik gabeko erakundeek, bai eta dagozkien erregistroetan inskribatuta dauden nekazaritza-ustategietako beste titular batzuek eta lotutako enpresek ere, administrazioarekiko harremana bitarteko elektronikoen bidez soilik izan beharko dute, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruko esku-hartzeak eta beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duen abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuaren 7. artikulua aplikatuz (aurrerantzean, abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretua).

2.– Hala ere, aurreko apartatuan adierazitako manuaren arabera, dekretu honetan xedatutakoarekin bat etorritik dituzten betebeharrak eta eskubideak gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren tresnak eta zerbitzuak jarriko dira ustategien titularren eta onuradunen eskura, hala komeni denean prozedura horiek bitarteko elektronikoen bidez kudeatzea errazteko eta sinplifikatzeko.

#### 12. artikulua.– Laguntzen deialdiak, eskabideak eta ebazpenak.

1.– EAEn ezartzen diren esku-hartzeen laguntzen deialdietan, dekretu honetan ezartzen denaz gainera, NPEPEa ere bete beharko da deialdiko esku-hartze guztietan.

#### 2.– Honako esku-hartze hauek ez dira deialdien xede izango:

- 1) Ezagutzen transferentziari, ezagutzen jarduerari eta prestakuntza- eta informazio-jarduerari buruzko esku-hartzea.
- 2) Kudeaketa-agintaritzaren laguntza teknikoari buruzko esku-hartzea.
- 3) Fruta eta barazkien inguruko esku-hartzea, non honako bi errege-dekretu hauetan xedatzen dena aplikatuko baita: urriaren 11ko 856/2022 Errege Dekretua, fruta eta barazkien sektoreko ekoizleen elkarten funts eta programa eragileak arautzen dituen irailaren 21eko 1179/2018 Errege Dekretua aldatzen duena; eta urriaren 11ko 857/2022 Errege Dekretua, fruta eta barazkien sektoreko ekoizleen elkarten eta haien antolakundearen funts eta programa eragileak arautzen dituen, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esku-hartze sektorialaren esparruan (aurrerantzean, urriaren 11ko 857/2022 Errege Dekretua).

3.– Ezagutzen transferentziari, ezagutzen jarduerari eta prestakuntza- eta informazio-jarduerari buruzko esku-hartzearen kasuan izan ezik, 10. artikuluko 3. apartatuko esku-hartzeen deialdia nekazaritza-politika erkidearen arloan eskumena duen saileko titularren aginduz egingo da.

4.– Iragartzen diren esku-hartze guztiek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 9. artikuluko 4. apartatuan xedatutako edukia jaso beharko dute, eta, gutxienez, honako hauek:

- a) Laguntzaren edo dirulaguntzaren xedearen definizioa.
- b) Esku-hartze bakoitzerako zuzkidura ekonomikoa eta funtsen jatorria, ahal dela. NBEFaren kontura finantzatzen diren laguntzen deialdi edo ekitaldi bateko guztirako zenbatekoa Batasun-

naren araudiaren eta erabakien arabera finkatuko da, edo oinarritzko araudia aplikatuz, betiere kontuan izanda aurrekontu-mugak eta araudi horretan ezarritako finantza-diziplinaren mekanismoak aplikatu behar direla.

c) Finantzaketa-iturria; hala dagokionean, laguntzaren xede diren eragiketak Europako funtsekin finantzatuko direla adierazi beharko da. Gainera, laguntza emateko eta ordaintzeko ebazpenetan zehaztu beharko da esku-hartzearen kopurutik zenbat finantzatuko den NBEFaren eta LGENFaren aurrekontuen kontura, eta berriaz adierazi beharko da Europar Batasunaren funtsak direla eta ordainketak NPEPE 2023-2027 planeko esku-hartzeetarako izango direla.

d) Onarpenerako baldintzak eta hautaketarako irizpideak, hala dagokionean.

e) Hala dagokionean, gastuen gaineko dirulaguntzak zehazteko kontuan hartuko den irizpidea, laguntza eskatzen den jardunaren betearazpen-mailaren arabera.

f) Eskabideak aurkezteko modua eta epea, eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

g) Dirulaguntza emateko prozedura, kontrolak eta ebazteko epeak.

h) Noiz eta nola frogatu behar duen onuradunak jasotako laguntzaren edo dirulaguntzaren helburua bete dela eta funtsak horretarako erabili dituela.

i) Dirulaguntza noiz eta nola ordainduko den. Hala dagokionean, konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera ezarriko da.

j) Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzeko aukera, gutxienezko baldintzak betetzen direnean, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarrak aldatzen badira edo beste administrazio, erakunde publiko edo entitate pribatu batek xede bererako emandako laguntza edo dirulaguntzaren bat lortzen bada edo diru-sarrera edo baliabideren bat eskuratzen bada.

k) Baldintza guztiak bete ezean, dirulaguntza itzultzeko prozedura.

l) Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratzeko aukerarik dagoen, eta, hala badagokio, bateraezinak ote diren. Bateragarritasuna onartzen bada, gehiegizko finantzaketa ez gertatzeko irizpideak edo mugak ezarri beharko dira nahitaez.

5.– Kudeaketa-organoek EAEko kudeaketa-agintaritza erregionalari jakinaraziko dizkiote laguntzak deitu eta garatzeko arauen proiektuak, egiazta dezan bat ote datozen Europar Batasunaren erregelamendu aplikagarrietan, dekretu honetan eta NPEPEan ezartzen denarekin.

6.– Azken xedapenetako bigarrenaren arabera, deialdi bakoitzaren aginduan zehaztu egingo dira Europako araudian zein Estatuko oinarritzko araudian izandako aldaketak, deialdiko esku-hartzean eragina dutenak.

7.– Eskabideak laguntzak kudeatzen dituen organoari aurkeztu behar zaizkio, esku-hartze bakoitzerako ezartzen diren epe eta baldintzetan. Eskabidea jaso duen organoak akatsen bat dagoela edo daturen bat ez dela zehatza antzemanaz gero, horren berri emango dio eskatzaileari, eta hark 10 eguneko epea izango du akatsa zuzentzeko. Epe horretan ez badu akatsa zuzentzen, eskaeran atzera egiten duela ulertuko da, organoak ebazpena eman ondoren.

8.– Laguntza-eskaeren eredu normalizatuak, prozeduraren fitxa eta horretarako sarbidea Eusko Jaurlaritzaren plataforma elektronikoan eta zerbitzuen katalogoan argitaratuta daude <https://www.euskadi.eus> Horietan, honako informazio hau egongo da eskuragarri:

a) Prozedura izapidetzeko jarraibideak.

- b) Eskabidea ebazteko epeari eta administrazio-isiltasunaren ondorioei buruzko informazioa.
- c) Eskabidea betetzeko jarraibideak eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.
- d) Prozedurako betekizunen eta egiaztatze moduaren inguruko informazio eguneratua, administrazio publikoen arteko kontsulta-sistemen bidez lortzeko aukera eta interesdunaren erantzukizunpeko adierazpena barne.
- e) Prozeduran egin daitezkeen izapide guztiak.
- f) Prozeduraren eredu eta inprimaki normalizatu guztiak (eskabide-inprimakia, erantzukizunpeko adierazpenena, ordezkaritza eskuordetzeko dokumentua...).

9.– Espedientera sartzeko, prozedura hasi ondorengo izapideak egiteko eta prozeduraren izaideetan emandako egintza guztiak jakinarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>), bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluekin eta herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 62. artikuluekin.

10.– Hala dagokionean, jakinarazpena argitalpen bidez egin ahal izango da, bai Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari lotuta, bai egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoari lotuta (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. eta 45. artikuluen arabera.

11.– Esku-hartze bakoitzerako ezarritako epean ebazpen espresurik ematen eta jakinarazten ez bada, eskabideak ezetsizat jo ahal izango dira, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikuluan xedatzen denaren arabera.

13. artikulua.– Onuradun izateko bete beharreko betekizunak.

Onuradunak izan daitezke NPEPEan eta, hala badagokio, LGENFaren esku-hartze bakoitzaren fitxan onuradunak izateko hautagarri gisa agertzen diren pertsona fisikoak zein juridikoak. Horiek, onuradunak izateko, berriaz ezarritako baldintzak eta betekizunak bete beharko dituzte, eta, gainera, honako hauetan ezartzen direnak ere bai: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena; abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa, eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

14. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. artikulua ezartzen dituen betebeharrak eta dekretu honetan eta deialdi-aginduetan xedatzen diren berriazko betebeharrak bete beharko dituzte.

15. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta laguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikulua orokorrean xedatzen duena betetzeaz gainera, esku-hartze bakoitzeko hauta daitezkeen gastuak errespetatu egin beharko dira, baita NPEPEan finkatutako laguntzen gehieneko ehunekoak eta zenbatekoak ere.

16. artikulua.– Datuen eta erregistroen integrazioa eta elkarreragingarritasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bermatu beharko du programa informatiko egokiak daudela NPEPEaren esku-hartzeak kudeatzeko, baita programa horietako datuak eta erregistroak eta Estatuko Administrazio Orokorraren programa eta erregistroetako datuak eta erregistroak bateragarriak direla eta denen arteko elkarreragingarritasuna ezar daitekeela ere.

#### 4. ATALA

##### ESKU-HARTZEAK FINANTZATZEA ETA KONTUAK LIKIDATZEA

17. artikulua.– NBEFaren konturako esku-hartzeen finantzaketa.

1.– 9. artikuluan arautzen diren zuzeneko ordainketak eta esku-hartze sektorialak finantzatzeko erabiliko diren baliabide ekonomiko guztiak Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (NBEF) etorriko dira, eta baliabide horien bolumen osoa Batasuneko araudian eta erabakietan edo Estatuko oinarritzko araudian deialdi edo ekitaldi bakoitzerako ezartzen dena izango da, betiere kontuan hartuta aurrekontu-mugak eta araudi horretan ezarritako finantza-diziplinaren mekanismoen aplikazioa.

2.– Aurreko apartatuan aipatzen den Europar Batasunaren finantzaketaz gainera, fruta eta barazkien eta erlezaintzaren sektoreko esku-hartzeetarako finantzaketa nazionala ere erabiliko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta foru-aldundien aurrekontuan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen kontura, hurrenez hurren.

3.– Esku-hartzeen ordainketa erakunde ordaintzailearen bidez egingo da, erakunde ordaintzaileko zuzendariak horretarako ebazpenak eman ondoren, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

18. artikulua.– LGENFaren konturako esku-hartzeen finantzaketa.

1.– 10. artikuluan arautzen diren landa-garapenerako esku-hartzeetarako erabiliko diren baliabide ekonomikoak Europako LGENF funtsetik eta foru-aldundien aurrekontuko kredituetatik edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontu orokorretan berariaz ezartzen diren kredituetatik etorriko dira, NPEPEan EA Erako programatutako esku-hartze bakoitzaren fitxan finkatutako finantzaketa-ehunekoa aplikatuz, hau da, Europako Batzordeak onartu eta aldi bakoitzean indarrean dagoena (LGENFak % 43, % 65 edo % 80 finantzatuko du).

2.– Aurreko apartatuan aipatutako finantzaketa bateratuaren sistemaz gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 146. artikuluan aurreikusitako finantzaketa nazional gehigarriaren metodoa ere erabili ahal izango da; kasu horretan, baliabide ekonomikoak foru-aldundien funtsetatik edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontu orokorretatik etorriko dira soilik. Finantzaketa nazionala erabiltzea aukerakoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta foru-aldundien urteko aurrekontuetan erabilgarri dauden diru-kopuruen arabera egikarituko da.

3.– Oro har, esku-hartze guztietan laguntzeko modua dirulaguntza ematea izango da. Hala ere, esku-hartze batzuk finantza-tresnen bidez finantzatu ahal izango dira, baldin eta NPEPEaren esparruan hala ezartzen bada Euskal Autonomia Erkidegorako. Kasu horretan, finantza-eragiketa horien finantzaketa bateratua eta kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren kontura izango dira.

4.– LGENFaren esku-hartzeetan, erakunde ordaintzaileak ordainketak 1. apartatuan aipatzen den finantzaketa bateratuko sistemaren bidez egiten dituenen, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan xedatzen denaren arabera egingo ditu, esku-hartzearen organo eskudunak laguntzaren zati nazionalaren ordainketa ebatzi eta egin ondoren (edo laguntzaren zenbateko osoarena, esku-hartzea foru-aldundi batek kudeatzen badu).

19. artikulua.– Finantzaketa bikoitzaren debekua eta NBEF eta LGENF funtsen konturako laguntzen bateragarritasuna.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduak ezartzen duenaren arabera, ezin dira finantzatu ez NBEFaren ez LGENFaren kontura Europar Batasunaren beste funts edo tresna batzuen kontura finantzatutako gastuak.

2.– LGENFaren kontura finantzatu ahal izango dira Europar Batasunaren beste funts edo tresna batzuen kontura finantzatutako jardunak, baldin eta finantzabide guztietatik jasotako laguntza osoa ez bada esku-hartzerako ezarritako gehieneko laguntza-intentsitatea edo gehieneko zenbatekoa baino gehiago. Kasu horietan, ezin izango dira finantzatu LGENFaren kontura beste funts batzuen kontura finantzatutako gastuak. Hori dela-eta, faktura bat zenbait gastutan zatitu daiteke hainbana, zenbait funtsen finantzabideak jaso ahal izateko.

3.– Mahastizaintza eta ardogintzako inbertsio-eragiketak (produktuak eraldatzeko zein merkaturatzeko) NBEFaren ardoaren sektoreko esku-hartzeen bidez baino ezin dira finantzatu.

4.– Fruta eta Barazki Ekoizleen Elkarteen (FBEE) programa operatiboetako jardunak, oro har, NBEFaren kontura baino ezin izango dira finantzatu. Debekatuta dago laguntzak bateratzea. Hala ere, FBEEen programa operatiboetako ingurumenaren arloko ekintzak klimaren eta ingurumenaren aldeko araubideekin (eko-araubideak) bat badatoz eta ingurumeneko ekintza baterako kalkulatu-tako kostua nekazariak eko-araubidearen bidez urtean jasotako zenbatekoa baino gehiago bada, programa operatiboari egotzi ahal izango zaio kostu horren ordainketa, nekazariak eko-araubidearen bidez jasotako zenbatekoa kenduta.

20. artikulua.– Finantza-likidazioa egiteko prozedura.

1.– Abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren 16. artikulua arabera, finantza-likidazioa da Europako Batzordeak egiten duen prozesua, zehazteko erakunde ordaintzaileak egin eta aitortutako gastuetatik zenbat finantzatu diren NBEF eta LGENF funtsen kontura.

2.– Prozedura honi dagokionez, erakunde ordaintzaileak zeregin hauek egin behar ditu, finantza-ekitaldia itxi ondoren eta FEAGA organismo autonomoak (erakunde ordaintzaileak kudeatzen dituen erakundeak) ezartzen dituen epeetan:

a) Ziurtapen-erakundeari bidaliko dizkio gastuen urteko kontuak eta kudeaketa-aitorpena, ikuska ditzan eta baliozkotzat jo ditzan.

b) Europako Batzordearen sistema informatikoan sartuko ditu urteko finantza-likidazioa egiteko behar diren informazio guztiak, honako hauek batez ere:

1.– NBEFaren eta LGENFaren urteko kontuak, eta horiek likidatzeko behar den informazioa.

2.– Ikuskapenaren eta kontrolen azken txostenak; txosten horietan gobernantza-sisteman antzeman diren errorearen eta akatsen analisia egin behar da eta ezarritako edo aurreikusitako neurri zuzentzaileak azaldu behar dira.

3.– Kudeaketa-aitorpena; bertan berretsi behar da aurkeztutako informazioa zuzena eta zehatza dela eta gobernantza-sistema ondo dabilela.

21. artikulua.– Errendimenduaren likidazioa egiteko prozedura.

1.– Abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren 17. artikuluaaren arabera, errendimendua-  
ren likidazioa Europako Batzordeak egiten du, egiaztatzeko NBEF eta LGENF funtsen kontura  
finantzatutako esku-hartze bakoitzerako finantza-ekitaldi batean ordaindutako zenbatekoa bat ote  
datorren NPEPEan ezarritakoarekin.

2.– Prozedura honi dagokionez, erakunde ordaintzaileak zeregin hauek egin behar ditu:

a) Hiru hilean behin, FEGA OAk adierazitako epeetan, esku-hartzeak nola gauzatu diren kon-  
trolatzeko behar den informazioa bidaliko dio erakunde horri, erakunde ordaintzaileak kudeatzen  
dituen erakundea den aldetik, onuradun bakoitzeko xehatuta: gauzatze-adierazleak, zenbateko  
unitarioak eta NPEaren emaitzen adierazleak.

b) Urtean behin, finantza-ekitaldia itxi ondoren eta FEGA OAk adierazitako epeetan:

1.– Urteko errendimenduaren txostena egingo du, FEGA OAk emandako ereduari jarraikiz.  
Txosten horretan, Europako Batzordeak likidaziorako eskatzen duen informazio guztia bildu  
beharko da.

2.– Txosten hori ziurtapen-erakundeari bidaliko dio, ziurtapena eman diezaion.

3.– Ziurtapena jaso ondoren, urteko errendimenduaren txosten ziurtatua FEGA OArri bidaliko  
dio.

3.– Erakunde ordaintzaileak izango du datuen kalitatearen ardura, eta informazioaren segurtas-  
una bermatuko du etengabe, batez ere NPEaren esku-hartzeei, gauzatze-adierazleei, zenbateko  
unitarioei eta emaitzen adierazleei buruzkoa.

22. artikulua.– Bi urtean behin errendimendua aztertzea.

1.– Abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren 18. artikuluaaren arabera, bi urtean behin,  
errendimenduari buruzko urteko txostenetan emandako informazioan oinarrituta, Europako Batzor-  
deak NPEaren Plan Estrategikoaren errendimenduaren bi urtean behingo azterketa egingo du.  
Prozesu horretan, Estatuko kudeaketa-agintaritzak eskatuz gero, EAEko kudeaketa-agintaritza  
erregionalak lagundu egingo dio: eskatzen duen informazio guztia emango dio eta, behar izanez  
gero, antzematen diren desbideratzeen analisiak egiten lagunduko dio.

2.– Analisi horrek agerian uzten badu neurri zuzentzaileak biltzen dituen ekintza-plana aurkeztu  
behar dela atzemandako akatsak zuzentzeko, EAEko kudeaketa-agintaritza erregionalak prestatu  
beharko du ekintza-plan hori.

3.– Erakunde ordaintzaileak bi urtez behingo errendimenduaren analisiaren inguruko alderdi  
guztietan lagunduko dio EAEko kudeaketa-agintaritza erregionalari.

## 5. ATALA

### INFORMAZIOA ETA PUBLIKOTASUNA

23. artikulua.– Informazioaren, publikotasunaren eta ikusgarritasunaren inguruko betebeharrak.

Hurrengo artikuluetan, administrazioei eta laguntzen onuradunei eskatu behar zaizkien betebeha-  
rrak ezartzen dira, bermatu ahal izateko erabat betetzen direla NPEPEaren eta Europako laguntzen  
informazioaren, publikotasunaren eta ikusgarritasunaren inguruko betebeharrak (Europako Parla-

mentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 123. eta 124. artikuluek ezartzen dituztenak eta Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 5. eta 6. artikuluetan eta II. eta III. eranskinetan zehazten direnak) –Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 (EB) Erregelamenduari jarraikiz olio-haziei, kotoiari eta ardogintzako azpiproduktuei dagozkien esku-hartze motetarako arauak ezartzen dituen (aurrerantzean, Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamendua), bai eta Europar Batasunaren laguntzarekin eta NPEaren plan estrategikoekin lotutako informazio-, publikotasun- eta ikusgarritasun-arloko betekizunetarako ere–.

24. artikulua.– Administrazioaren betebeharrak.

1.– EAEko kudeaketa-agintaritzaren erregionalari dagokio komunikazio- eta ikusgarritasun-ekin-tzak ezartzeko betebeharrak, NPEPEa indarrean dagoen bitartean. Horretarako, <https://www.euskadi.eus/web01-a1pac/eu/> webgunea edo hura ordeztzen duen beste webgune bat erabiliko da, publiko orokorrari EAEko NPEPEari buruzko informazio garrantzitsua emateko, esku-hartzeetarako laguntzen deialdien egutegia eta horietarako esteka barnean direla.

2.– Beste alde batetik, publikotasuna eta gardentasuna aintzat hartuta, EAEko kudeaketa-agintaritzaren erregionalak gutxienez eduki hauek jarriko ditu webgune horretan, NPEPEaren emaitzen eta errendimenduaren jarraipena egin ahal izateko:

a) Jarraipen Batzordearen barne erregelamendua, batzordekideen zerrenda eta ematen dituen irizpenak.

b) Urteko errendimenduaren txostenak, eta horien laburpena, herritarrentzat.

c) NPEPEaren gauzatze-aldian eta ondoren egindako ebaluazioak.

25. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

1.– Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamendua- ren III. eranskineko 2. artikuluan xedatutakoa betez, azalerekin eta animaliekin lotuta ez dauden eta LGENFak finantzatuta dauden esku-hartzeen onuradunek NPEPEaren laguntza jakinarazi beharko dute:

a) onuradunaren webgune ofizialean, halakorik edukiz gero, eta sare sozialetako kontu ofiziale- tan jardunaren deskribapen laburra egingo dute, laguntzaren mailaren proportzioan, helburuak eta emaitzak adierazita, eta Europar Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduta.

b) herritarrei edo parte-hartzaileei zuzendutako eta jardunaren betearazpenarekin lotutako komunikazio-arloko agiri eta materialetan, adierazpen bat jarriko dute erraz ikusteko moduko toki batean, eta hor zehaztuko dute Europar Batasunaren laguntza jaso dutela.

c) jardunaren xedea azpiegiturak edo eraikuntza-jarduerak finantzatzea bada eta horien guztirako gastu publikoa 500.000 euro baino gehiago bada, herritarrek erraz ikusteko moduko publikitate-plakak edo -hesiak jarriko dituzte, Europar Batasunaren ikurra agerian dutenak (ikurra- ren ezaugarri teknikoak dekretu honen II. eranskinean zehazten dira), jardunen egikaritze fisikoa hasi edo erositako ekipoak instalatu bezain laster.

d) jardunaren xedea c) letran aipatzen ez diren aktibo fisikoetan inbertitzea denean eta guztira- ko laguntza publikoa 50.000 euro baino gehiago bada, proiektuari buruzko informazioa ematen duen plaka bat edo pantaila elektronikoa jarriko dute, eta bertan nabarmenduta agertu beharko da Europar Batasunaren finantza-laguntza.

e) jardunaren xedea LEADER motako jardunei laguntzea bada (zehazki, c) eta d) letretan aipatzen ez diren oinarritzko zerbitzu eta azpiegiturei), eta guztirako laguntza publikoa 10.000 euro baino gehiago bada, jardunari buruzko informazioa ematen duen A3 tamainako kartel bat edo pantaila elektronikoa jarriko da, herritarrek erraz ikusteko moduko leku batean, eta bertan nabarmenduta agertu beharko da Europar Batasunaren laguntza. LEADER programaren bidez finantzatzen diren tokiko ekintzarako taldeen instalazioetan ere argibide-plaka bat jarriko da.

2.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 77. artikuluan ezarritakoaren arabera, nekazaritza-produktibitatearen eta -jasangarritasunaren arloko Berrikuntzarako Europako Elkarteko (aurrerantzean, BEE) talde eragileentzako laguntzen kasuan, talde horiek kudeaketa-agintaritzaren eta, oro har, herritar guztien eskura jarri beharko dute euren planen eta proiektuen emaitzen laburpena, ahal dela taldeen webguneetan.

26. artikulua.– Europar Batasunaren ikurraren erabilera.

1.– Bai kudeaketa-agintaritzak bai NPEPEren laguntzak kudeatzen dituzten organoek eta horien onuradunek Europar Batasunaren ikurra erabili beharko dute ikusgarritasun, gardentasun eta komunikazioko jarduerak egiten dituztenean. Ikurraren ezaugarri teknikoak dekretu honen II. eranskinean eta 2021eko abenduaren 21eko Batzordearen 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamenduan zehazten dira.

2.– Ikurra nabarmenduta agertu beharko da herritarrei jardunen berri emateko prestatzen diren komunikazio-material guztietan, hala nola produktu inprimatuetan eta digitaletan, webguneetan eta horien sakelakoetarako bertsioetan. Ikurrarekin batera honako azalpen hauetako bat agertu beharko da, kasuan kasukoa: «Europar Batasunak finantzatua» edo «Europar Batasunak modu bateratuan finantzatua».

## 6. ATALA

### IRUZURRA ETA INTERES-GATAZKA

27. artikulua.– Iruzuraren aurkako politika.

1.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko irailaren 11ko 883/2013 Erregelamenduan (EB, Euratom) –Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) egindako ikerketei buruzkoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 Erregelamendua (EE) eta Kontseiluaren 1074/1999 Erregelamendua (Euratom) indargabetzen dituena– eta abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta Europar Batasunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren finantza-interesak babesteko, erakunde ordaintzaileak indartu egingo du iruzurraren aurka borrokatzeko politika, NBEF eta LGENF funtsekin finantzatutako NPEaren esku-hartzeen esparruan.

2.– Horretarako, iruzurtzat ulertuko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko uztailaren 5eko 2017/1371 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan xedatutakoa. Europar Batasunaren finantza-interesei kalte egiten dien iruzurraren kontra zigor zuzenbidearen bidez borrokatzeari buruzkoa da zuzentarau hori («PIF Zuzentaraua»).

28. artikulua.– Iruzuraren aurkako neurriak esku-hartzeen kudeaketan.

1.– Abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren 25. artikuluan xedatutakoa betez, hauek izango dira erakunde ordaintzailearen estrategiaren oinarriak iruzurraren aurka borrokatzeko: jardun-prozedurak argiak izatea eta eguneratuta egotea, eta kultura etikoa sendotzea EAEko administrazioan eta laguntzen onuradunen artean.



2.– Estrategia hori aplikatzeko, erakunde ordaintzaileak dagozkion neurriak ezarriko ditu iruzurrik ez gertatzeko eta gertatzen dena detektatzeko, modu bidegabean ordaindutako kopuruak berreskuratzeke eta zehapenak ezartzeko, jarduketan jarraipena egiteko, eta gertatzen diren iruzurren berri emateko Europako erakundeei eta behar diren erakunde judizialei.

3.– Jarduketa horiek prozeduraren eskuliburuan azaldu behar dira. Bertan, honako neurri hauek landuko dira, besteak beste:

a) Prebentzioaren arloan, kultura etikoa sustatuko da prestakuntzaren bitartez, esku-hartze bakoitzaren arriskuak aztertuko dira, eta egitekoak eta erantzukizunak bereiziko dira.

b) Iruzurraren detekzioari dagokionez, herritarrek salaketak egiteko kanala edukiko dute eta, NPEaren funtsen erabileran iruzurra gertatu delako susmorik izanez gero, haren bidez jakinarazi ahal izango dute. Komunikazio-kanal hori konfidentziala (anonimoa), eraginkorra eta segurua izango da, eta salatzaileen datu pertsonalak babestuta egongo dira beti.

c) Azkenik, atzemandako balizko iruzurrak kudeatzeko prozedura zehaztuko da, bai eta dagozkien erakunde nazionaleri eta nazioartekoei jakinarazteko prozedura ere.

#### 29. artikulua.– Interes-gatazka.

Dekretu honen ondorioetarako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduak (EB, EURATOM), Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu dakizkiokeen finantzaketa-arauei buruzkoak eta zenbait erregelamendu indargabetzen dituenak, 61. artikuluan ezartzen duen bezala, interes-gatazka egon daiteke aurrekontua gauzatzeko (prestakuntza barne) ari diren finantza-eragileek beren funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago zenbait arrazoiengatik: arrazoi familiarak, afektiboak, kideatasun politikoak, interes ekonomikoak edo interes pertsonaleko beste edozein arrazoi.

#### 30. artikulua.– Interes-gatazkei aurre egiteko estrategiak.

1.– Abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren 25. artikuluan xedatutakoa betez, erakunde ordaintzaileak esleituta dauzkan laguntzen kudeaketa gardena zaindu behar du, eta horretarako estrategia eta neurri egokiak ezarriko ditu gerta litezkeen interes-gatazkei aurre egiteko, Europar Batasunak eskatzen duen bezala eta Europar Batasunaren indarreko araudiarekin bat etorriz. Horretarako, honako jarduera hauek egingo ditu, besteak beste:

a) Eskuliburu bat prestatuko du, eta arlo hauek zehaztuko ditu dokumentu horretan:

1.– Interes-gatazkaren definizio argia.

2.– Balizko interes-gatazken aurrean jokatzeko prozedura, langileentzat.

3.– Interes-gatazkarik ezaren adierazpen eredia.

b) Erakunde ordaintzailean lanean ari diren enplegatuek publikoari bidaliko die eskuliburu hori, hain zuzen ere NPEaren esku-hartzeetan ari direnei (prestakuntza-lanak, auditoretza-lanak eta kontrolak barne), bai eta eginkizunak delegatuta dauzkaten ere, beste administrazio publiko zein entitate pribatu batzuetan.

c) Enplegatuek interes-gatazkei buruzko etengabeko prestakuntza eta kontzientzia jostzea bultzatu eta sustatuko du.

d) Urtero txosten bat egingo du atzemandako interes-gatazkei eta haien inguruko erabakiei buruz. Txosten hori erakunde ordaintzailearen agintaritza eskudunari bidaliko zaio.

2.– Dekretu hau indarrean jartzen denean, 1b) apartatuan aipatzen diren langile guztiek interes-gatazkarik ezaren adierazpen eredia sinatu beharko dute aipatutako eginkizunetako bat esleitzen zaienean, erakunde ordaintzaileari esleitutako Europar Batasunaren laguntzak kudeatzeko, izapidetzeko eta kontrolatzeko lanei dagokienez.

## 7. ATALA

### BIDEGABEKO ORDAINKETAK KONTROLATZEKO ETA BERRESKURATZEKO SISTEMA, ZEHAPENAK ETA PENALIZAZIOAK

31. artikulua.– Bidegabeko ordainketak kontrolatzeko eta berreskuratzeko sistema.

1.– Kontrol-sistema EAEn ezartzeko, eta abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuaren 31. artikulua 1. apartatuan xedatutakoari jarraikiz, erakunde ordaintzaileak kontrol-plan bat egingo du. Plan horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan programatutako NBEF eta LGENF esku-hartze guztiak kontrolatzeko alderdi garrantzitsu guztiak jasoko dira. Gainera, behar diren prozedura espezifikoen eskuliburuak ere prestatuko ditu, eta plana eta eskuliburuak eguneratuta mantenduko ditu NPEPEaren indarraldi osoan.

2.– Nekazaritza Politika Erkidea kudeatzeko sistema eta hari lotutako beste gai batzuk arautzen dituen abenduaren 23ko 30/2022 Legearen 10. artikulua 1. apartatuan xedatutakoaren arabera, Europar Batasunaren finantza-interesak behar bezala bermatu behar direnez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren 59.1 artikuluan ezartzen den bezala, baldin eta bidegabeko ordainketarik egiten bada irregular-tasun, zabarkeria edo errore administratibo batengatik eta ezarritako kontrol-sistemaren bidez antzematen bada, itzultzeko eskatuko zaio onuradunari, honako xedapen hauetan ezartzen denarekin bat etorritik: Nekazaritza Politika Erkidea kudeatzeko sistema eta hari lotutako beste gai batzuk arautzen dituen abenduaren 23ko 30/2022 Legearen 10. artikulua; abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa; abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten izaiki laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen; eta foru-aldundiek modu bateratuan finantzatzen dituzten laguntzei aplikatzen zaien foru-araudia.

3.– Nekazaritza Politika Erkidea kudeatzeko sistema eta hari lotutako beste gai batzuk arautzen dituen abenduaren 23ko 30/2022 Legearen 10. artikulua 2. apartatuan xedatutakoaren arabera, aurreko apartatuan aipatzen diren zenbatekoak ez berreskuratzea erabaki ahal izango da, baldin eta onuradunak laguntza-araubide edo laguntza-neurri baten bidez jasotako banakako ordainketaren kopurua ez bada 250 eurotik gorakoa (interesak zenbatu gabe), Europar Batasunaren araudiak beste zenbateko bat ezarri ezean. Hala gertatzen denean, onuradunari azalduko zaio zer ez duen bete, eta jakinaraziko zaio neurri zuzentzaileak ezarri behar dituela halakorik berriro ez gertatzeko.

32. artikulua.– Zehapen-araubidea.

Nekazaritza Politika Erkidearen arloko arau-hauste administratiboan zehapen-araubidea honako hauetan ezarritakoa da: abenduaren 23ko 30/2022 Legea, Nekazaritza Politika Erkidea kudeatzeko sistema eta hari lotutako beste gai batzuk arautzen dituen, eta martxoaren 16ko 1/2023 Legea, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzkoa.

### 33. artikulua.– Zehatzeko ahala.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion esku-hartzeetan, zehatzeko ahala hurrengo artikuluan xedatzen denaren arabera erabiliko da.

2.– Foru-aldundiei dagozkien esku-hartzeetan, erakunde horrek dituen organoek erabiliko dute zehatzeko ahala.

34. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion esku-hartzeetan zehapenak ezartzeko prozedura.

1.– Arau-haustea egiteagatik zehapen administratiboak ezarriko dira, dagokion espedientea izapidetu ondoren.

2.– Zehapen-prozedura ebazteko epea urtebetekoa izango da gehienez. Epe hori eten eta luzatu ahal izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. eta 23. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz. Ebazteko epea igaro eta ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.– Prozedura hastea 6. apartatuan xedatzen diren organoei dagokie.

4.– Zehapen-prozeduraren instrukzioa amaitutakoan, instrukzio-organok ebazpen-proposamena egingo du, eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Ebazpen-proposamenean alegazioak eta beharrezkotzat jotzen diren agiriak eta informazioak aurkezteko epea zehaztu beharko da. Gutxienez hamar egunekoa izango da. Instrukzio-egileak prozeduraren amaiera ebazteko ahalmena izango du, jarduketak artxibatuta, ebazpen-proposamenik egin beharrik gabe, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 89.1 artikulua arabera.

5.– Ebazpen-proposamenean adieraziko da, modu arrazoituan, zer egitate ematen diren frogatuz eta zer kalifikazio juridiko duten zehazki; gainera, zehaztuko da zer arau-hauste gertatu den, gertatu bada, nor diren erantzuleak eta zer zehapen proposatzen den, zein den egindako frogan balorazioa, batez ere erabakiaren funtsezko oinarriari dagokienez, eta behin-behineko zer neurri hartu den, hartu bada. Instrukziotik ondorioztatzen bada ez dagoela arau-hausterik edo erantzukizunik, eta ez bada baliatzen aurreko apartatuan aurreikusitako ahalmena, hala jasoko da proposamenean.

6.– Zehatzeko ahala honako hauek erabiliko dute:

a. Nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen sailaren titularrak, arau-haustea astuna edo oso astuna denean. Nolanahi ere, zehatzeko-ahala beste norbaiti eskuordetu ahal izango dio.

b. Nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen sailean gaiaren gaineko eskumena duen sailburuordetzaren titularrak, arau-haustea arina denean.

7.– Organo eskudunak dagokion ebazpena emango du. Ebazpenean egindako frogan balorazioa egingo da, eta zehaztuko da zein diren egitateak eta, hala badagokio, zein diren erantzuleak, zer arau-hauste egin den eta zer zehapen ezarriko den, edo, bestela, arau-hausterik edo erantzukizunik ez dagoela adieraziko da.

### 35. artikulua.– Penalizazioak.

Laguntzen eta ordainketen eskaerei eragiten dieten ez-betetzei honako errege-dekretu hau aplikatuko zaie: otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretua, zeinaren bidez Nekazaritza Politika

Erkidearen Plan Estrategikoan jasotako esku-hartzeetan zigorrak aplikatzeko arauak ezartzen baitira, eta 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidea Espainian aplikatzearekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituzten errege-dekretu batzuk aldatzen baitira.

## II. KAPITULUA

### KUDEAKETA ETA KONTROLEKO SISTEMA INTEGRATUAN (SIGC) SARTUTAKO NPEPEAREN ESKU-HARTZEAK KUDEATZEA ETA KONTROLATZEA

#### 1. ATALA

##### XEDAPEN OROKORRAK

36. artikulua.– SIGC sisteman sartutako NPEPEaren esku-hartzeak.

Abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuaren 8. artikulua 2. apartatuarekin bat etorriz, Kudeaketa eta Kontrol Sistema Integratua sartzeko NPEPEaren esku-hartzeak, dekratu honen 9. artikuluan jasotakoak, bai eta LGENF funtsaren landa-garapenerako esku-hartzeak ere, 10. artikulua 2. apartatuaren «a» azpiapartatutik «g» azpiapartatura bitartean jasotakoak (biak barne).

37. artikulua.– Sistemaren elementuak.

Abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuaren 8. artikulua 4. apartatuarekin bat etorriz, kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuak elementu hauek izango ditu:

- a) Laguntzak eskatzeko sistema (eskabide bakarra).
- b) Errentarako oinarritako laguntzarako eskubideak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema.
- c) Nekazaritzako Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC).
- d) Sistema integratuko esku-hartzeen eta neurrien onuradunak, azalera eta animaliak identifikatzeko sistema.
- e) Azalera monitorizatzeko sistema.
- f) Kontrolatzeko eta penalizatzeko sistema.
- g) Abereak identifikatzeko eta erregistratzeko sistema (SITRAN).
- h) Nekazaritza-ustategien informazio-sistema.

#### 2. ATALA

##### LAGUNTZA ESKATZEKO SISTEMAK (ESKABIDE BAKARRA)

38. artikulua.– Laguntzak eskatzeko sistema (eskabide bakarra).

Nekazariak eta abeltzainak urtean laguntza-eskabide bat bakarrik aurkeztu ahal izango dute, azalera edo abelburuak oinarritat hartuta. Zuzeneko laguntzak zein landa-garapenerako esku-hartzeak eskatu ahal izango dituzte. Eskabide bakarrean 1048/2022 Errege Dekretuaren IV. tituluaren I. kapituluaren ezartzen dena bete behar da (abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretua,

2023tik aurrera Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan zuzeneko ordainketen esku-hartzeak aplikatzeari eta betekizun komunak ezartzeari buruzkoa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren eskabide bakarra arautzeari buruzkoa); aurrerantzean, abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretua.

### 3. ATALA

#### ERRENTARAKO OINARRIZKO LAGUNTZARAKO ESKUBIDEAK IDENTIFIKATZEKO ETA ERREGISTRATZEKO SISTEMA

39. artikulua.– Eskubideen datu-basea.

Abenduaren 27ko 1045/2022 Errege Dekretuak, Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan jasagarritasuna bultzatzeko errentaren oinarritzko laguntzaren eskubideei buruzkoak (aurrerantzean, abenduaren 27ko 1045/2022 Errege Dekretua), 6. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Estatuko jasagarritasuna bultzatzeko errentarako oinarritzko laguntzarako eskubideen identifikazio eta erregistro elektronikorako sistema garatuko da. Sistema hori Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioan ezarrita dago FEGA OAre bidez, errege-dekretu horretan xedatzen den bezala.

### 4. ATALA

#### NEKAZARITZAKO LURSAILAK IDENTIFIKATZEKO INFORMAZIO GEOGRAFIKOAREN SISTEMA

40. artikulua.– Nekazaritzako Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistemaren erabilera.

1.– Nekazaritzako Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (aurrerantzean, SIGPAC) nekazaritzako lursailak identifikatzeko sistema da, SIGC sisteman ([https://www.euskadi.eus/sigpac\\_identifikazio\\_sistema/web01-a2pac/eu/](https://www.euskadi.eus/sigpac_identifikazio_sistema/web01-a2pac/eu/)) ezarritako esku-hartzeak kudeatzeko eta kontrolatzeko, eta lursailak identifikatzea eskatzen duten esku-hartzeetarako. Beraz, erreferentziazko datu-base bakarra da nekazaritzako lursailak identifikatzeko, NPEaren esparruan.

2.– Halaber, SIGPAC erreferentziazko datu-basea da nekazariak azalerei eta laborantzei buruzko informazioa emateko, 1054/2022 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan ezartzen denari jarraituz (abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen eta arautzen baitira Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiatzearen eta Nekazaritza Ekoizpenaren Informazio Sistema, Nekazaritza Ustiatzearen Erregistro Autonomikoa eta Nekazaritza Ustiatzearen Koaderno Digitala).

3.– 1. apartatua ezartzen denari kalterik egin gabe, azalaren aitortzea SIGPACekoak ez diren beste identifikazio-erreferentzia batzuk kontuan hartuta egin ahal izango da, honako kasu hauetan:

a) Erkidegoan erabiltzen diren larre publikoen azalera aitortzen direnean.

b) Mahastizaintzako eta ardogintzako sektoreko azalarekin lotutako laguntzetarako, Mahastizaintza Erregistroa erabiltzen jarraitu ahal izango da lursailak identifikatzeko. Nolanahi ere, bermatu behar da Mahastizaintza Erregistroetan identifikatutako lursail guztiak SIGPACeko informazio grafikoan eta alfanumerikoan agertzen direla.

41. artikulua.– Nekazaritzako Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema: mota eta izaera juridikoa.

1.– SIGPAC erregistro administratibo publikoa da. Bertan, azalarekin lotutako Batasunaren laguntzak jaso ditzaketen lursailak buruzko informazioa biltzen da; gainera, zehaztutako nekazaritzako erabilerak edo aprobetxamenduak dituzten lursailen eta esparruen euskarri grafikoa dauka.

2.– SIGPAC datu-base geografikoa da, eta honako datu hauek biltzen ditu: esparru bakoitzaren mugapen geografikoa, bere erreferentziarekin; nekazaritza-erabileraren atributua eta beste informazio garrantzitsu batzuk; bere eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren beste kartografia batzuk eta Estatuko lurralde osoko erreferentziazko ortoargazkiak eta mapak.

3.– SIGPACeko esparru bakoitzean, diruz lagundu daitekeen gehieneko azalera zehaztu behar da.

42. artikulua.– Nekazaritza Politika Erkideko laguntzen eta beste dirulaguntza batzuen onuradunen erantzukizuna.

1.– Dekretu honen 9. artikulua a) apartatuan eta 10. artikulua 2. apartatuaren a) azpiapartatutik g) azpiapartatura jasotako laguntzen eskabideei dagokieenez, bai eta azalera aitortzeko SIGPAC erreferentzia gisa erabiltzen duten beste dirulaguntza batzuen eta erregistro publikoetako inskripzioen eskabideei dagokienez ere, laguntza horiek edo dena delako erregistroan (nekazaritza-ustategien informazio-sistemako nekazaritza ustategien erregistro autonomikoa barnean dela) inskribatzeko eskatzeko erabiltzen diren SIGPACeko esparruak aitortzen dituen nekazariak bere gain hartzen du honako erantzukizun hau: SIGPACen erregistratzen duen informazioa (grafikoa zein alfanumerikoa) egiazkoa dela eta errealitatearekin bat datorrela.

2.– Hain zuzen ere, onuradunak egiaztatu beharko du SIGPACeko esparruaren mugapen grafikoa eta erabilera lursailaren egiazko mugapenarekin eta erabilerarekin bat datozela eta esparruan ez dagoela dirulaguntzarako onartzen ez den elementurik, hala nola biderik, eraikinerik edo ekoizpenerako ez den bestelako elementu iraunkorrik. Larre-sailen kasuan, onuradunak egiaztatu beharko du sailari esleitutako larreen dirulaguntza-koefizientea bat datorrela sailaren dirulaguntza-azalarekin.

3.– Inaktibo gisa ageri ez diren esparruak soilik joko dira zuzenean aitortutzat edo inskribatutzat. Esparru inaktibo bat aitortu nahi izanez gero, nekazariak SIGPACeko aldaketa eskatu beharko du inaktibotasuna ezabatzeko, eta horrez gain bigarren apartatuan azaltzen diren egiaztapenak egin beharko ditu.

4.– Laguntza eskatu ondoren edo erregistroan inskribatzeko eskatu ondoren egiaztatzen bada SIGPACen erregistratutako informazioa ez dela zuzena, dagozkion zehapenak eta zigorrak ezarriko dira, eta, hala badagokio, modu bidegabean jasotako ordainketak itzuli beharko dira.

43. artikulua.– Nekazaritzako Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema aldatzeko eskaerak.

1.– SIGPACeko esparru baten titularra edo esparru hori erabiltzeko eta horren aprobetxamendua baliatzeko gaitasuna frogatzen duen pertsonaren bat ez badago ados esparru hori buruz SIGPACen erregistratuta dagoen informazioarekin, errealitatearekin bat ez datorrelako, informazio hori berrikusteko eskaera egin beharko du, eta, horretarako, aldaketa-eskabidea aurkeztu beharko du, behar bezala arrazoituta eta dokumentu bidez justifikatuta.

2.– Nolanahi ere, esparruari dagokion katastro-lursailari buruzko informazio grafikoa eta alfanumerikoa aldatzeko eskatzen bada, eskabidea higiezinaren katastroa kudeatzeko eskumena duen agintaritzari aurkeztu beharko zaio, hain zuzen ere lursailari dagokion probintzian.

3.– Aldaketa-eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritzaren arloko eskumena duen zuzendaritzan egin beharko dira, zuzeneko laguntzen urteroko deialdi-aginduan ezarritako prozeduraren arabera.

4.– SIGPAC aldatzeko eskabideak aurkezteko epeak direla-eta, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Interesdunek edozein unetan aurkeztu ahal izango dizkiote alegazioak SIGPACen edukiari; horretarako, 1. apartatuan aipatzen den aldaketa-eskabidea aurkeztu beharko dute.

b) Hala ere, nahi bada aldaketa kontuan hartzea SIGC sisteman sartu beharreko NPEaren esku-hartzeen eskabide bakarrerako (esku-hartze horiek abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuak arautzen ditu), abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretu horren 112. artikuluan eskabide bakarra aldatzeko ezarritako epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko da alegazioa.

5.– Aurreko kontrolen, kontrol administratiboen edo monitorizazio-kontrolen ondorioz nekazari batek eskatu behar badu eskabide bakarra egokitzeko abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren 112.2 eta 112.3 artikuluetan arautzen denaren arabera eta, gainera, SIGPACeko informazioa aldatu behar badu, esparru horiek aldatzeko eskaera egin ahal izango du artikulua horretan ezartzen diren epeetan.

6.– Gainera, aurreko kasuan, SIGPACeko informazioa ofizioz eguneratuko da nekazariak bere eskabide bakarra egokitzen duenean aurreko kontrolen, kontrol administratiboen edo monitorizazio-kontrolen ondorioz, baldin eta ofiziozko eguneraketa beharrezkoa bada SIGPACen, eskabide bakarrek informazio berriaren eta kontrolen emaitzen arteko koherentzia mantentzeko.

## 5. ATALA

### AZALERAK MONITORIZATZEKO SISTEMA

44. artikulua.– Definizioa eta aplikazio-eremua.

1.– Azalerak monitorizatzeko sistemaren funtsa izango da nekazaritzako lursailetan egiten diren nekazaritzako jarduerak eta lanak modu sistematikoan eta aldian-aldian behatzea, lokalizatzea eta aztertzea, Copernicus programako Sentinel sateliteek bildutako datuak edo antzeko beste datu batzuk baliatuz, eskatzen diren esku-hartzeak dirulaguntzarako onargarriak diren erabakitze behar den denbora-tartean. Gainera, azalerak monitorizatzeko sistemak jarraipen-ekintza egokiak aplikatuko ditu, dirulaguntzarako onartu daitezkeen edo ez argi ez dagoen eskaerarako.

2.– Azalerak monitorizatzeko sistema nahitaez aplikatuko zaie azalera oinarritutako esku-hartzeak dituzten laguntza-eskabide guztiei.

3.– 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera, geoetiketadun argazkiek Copernicus programako sateliteen bidez bildutako datuen balio bera izango dute, eskumena duen agintaritzak urteroko deialdiaren aginduan esku-hartze bakoitzerako ezarritako dirulaguntzarako baldintzei eta elementu espezifikoiei dagokienez.

45. artikulua.– Nekazariekin komunikatzeko sistema.

1.– Abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretuak xedatzen duenarekin bat etorriz, komunikazio-sistema elektronikoa ezarriko da, eta onuradunek nahitaez erabili beharko dute Administrazioarekiko harremanetarako. Administrazioak ustiatzearen titularren eta onuradunen eskura jarriko ditu betebeharrak betetzeko eta eskubideak baliatzeko behar dituzten tresnak eta zerbitzuak, prozedura horiek baliabide elektronikoen bidez errazago egin ahal izan ditzaten.

2.– Sistema horren bidez, monitorizazioari eta aurreko kontrolei esker antzematen diren gora-beheren berri emango zaie nekazariei, eta sistema bera erabiliko da onuradunei frogari gehiago

eskatzeko (argazki geoetiketadunak) jarraipen-jarduketetan. Gainera, administrazioak onuradunei aukera emango die beren espedienteetako azalera monitorizatzeko kontrolen emaitzak aztertzeko.

3.– Dirulaguntzarako baldintzak soilik argazki geoetiketadunen bitartez monitorizatu badaitzke, nekazariak argazki horiek garaiz eta behar bezala aurkezten ez baditu, monitorizatutako baldintzak ez dira betetzat joko. Modu berean jokatu da nekazariak ez baditu eskatutako froga gehigarriak aurkezten edo argazkiak epez kanpo aurkezten baditu.

46. artikulua.– Laguntza-eskabideak moldatzea.

Egindako jakinarazpenen ondorioz, onuradunek beren eskaerako nekazaritza-lursailak egokitu ahal izango dituzte azalera monitorizatzeko sistemaren esku-hartzeen arabera, abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren 112. artikuluan adierazitako epeetan eta moduan.

47. artikulua.– SIGPAC eguneratzea.

Azalera monitorizatzeko sistemaren emaitzak Nekazaritzako Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema eta beste datu-base ofizial batzuk eguneratzeko erabiliko dira.

## 6. ATALA

### KONTROLATZEKO ETA PENALIZATZEKO SISTEMA

48. artikulua.– Kontrolatzeko eta penalizatzeko sistema kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren esparruan.

Kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren esparruko kontrolak eta penalizazioak Kontrolen Plan Autonomikoan jasoko dira, dekretu honetan arautzen diren kontrolen eta penalizazioen sistemaren parte gisa.

## 7. ATALA

### ABEREAK IDENTIFIKATZEKO ETA ERREGISTRATZEKO SISTEMA

49. artikulua.– Abereak Identifikatzeko eta Erregistratzeko Sistema.

1.– Abereetan oinarritutako esku-hartzeetako dirulaguntzetarako baldintzak modu automatikoan egiaztatzeko behar den informazioa (ustiategiaren eta bertako ekoizpen-unitateen titulartasuna, ustiategiaren ekoizpenaren orientazioa eta data edo aldi jakin bateko abereen errolda, esaterako) Abereen Trazabilitate Sistema Integraleko (aurrerantzean, SITRAN) erregistroetatik baino ez da aterako. Erregistro horiek honako errege-dekretu hauetan arautzen dira: martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretua, abeltzaintzako ustiategien erregistro orokorra ezartzen eta arautzen duena; eta ekainaren 13ko 728/2007 Errege Dekretua, abereen mugimenduen erregistro orokorra eta abereak banaka identifikatzeko erregistro orokorra ezartzen eta arautzen dituen. Sistema horretan honako hauek daude:

- a) Abeltzaintzako ustiategien erregistro orokorra (REGA).
- b) Abereen mugimenduen erregistro orokorra (REMO).
- c) Abereak banaka identifikatzeko erregistro orokorra (RIIA).



2.– Kudeaketa- eta kontrol-sistema integratu autonomikoan bildutako informazioa foru-aldundietako agintaritza eskudunek eguneratuko dute, beren datu-baseetan erregistratutako informazioa baliatuz.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko kudeaketa- eta kontrol-sistema integratutik, hasieran laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten abereen zerrenda aterako da. Lotutako zuzeneko laguntzen kasuan, abere horiek dirulaguntza jaso dezaketen aberetzat joko dira. Kontzeptu hori abereetan oinarritutako zuzeneko ordainketa gisako esku-hartzeen eskabide automatikoen sistemen ardatza da.

## 8. ATALA

### NEKAZARITZA-USTIATEGIEN INFORMAZIO-SISTEMA

50. artikulua.– Nekazaritza-ustiategien informazio-sistema.

1.– Nekazaritza-ustiategien informazio-sistemako informazioa baliatuz (abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen eta arautzen baitira Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiategien eta Nekazaritza Ekoizpenaren Informazio Sistema, Nekazaritza Ustiategien Erregistro Autonomikoa eta Nekazaritza Ustiategiaren Koaderno Digitala), Sistema Integratuan egiaztatuko da azalera oinarritutako esku-hartzeen gutxieneko baldintzak eta dirulaguntzetarako baldintzak eta konpromisoak betetzen ote diren, eta elkarreragingarritasuna ezarriko da beste sail batzuen mendeko datu-base eta erregistro administratibo batzuekin, hain zuzen ere nekazaritza ustiategien karakterizaziorako garrantzitsuak direnekin.

2.– Nekazaritza-ustiategien erregistro autonomikora eta koaderno digitalera sartzeko –erregelamendu bidez garatuko da–, helbide honetara jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nekazaritza-ustiategiaren-koaderno-digitala/web01-a2pac/eu/>

## III. KAPITULUA

### BALDINTZA INDARTUAK ETA BALDINTZA SOZIALAK

51. artikulua.– Kotsiderazio orokorrak.

Baldintza indartuak eta baldintza sozialak aplikatzeko arauak, abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuan jasotakoak –1049/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez ezartzen baita zer arau erabiliko diren Nekazaritza Politika Erkidearen esparruko laguntzen onuradunek bete behar dituzten baldintza sozialak eta indartuak aplikatzeko, baldin eta zuzeneko ordainketak, landa-garapeneko eta Urrun eta Uharteetan egoteagatiko Aukera Espezifikoen Programaren (POSEI) urteko ordainketa jakin batzuk jasotzen badituzte– (aurrerantzean, abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretua), aplikagarriak zaizkie aipatutako errege-dekretuaren 1. artikuluan jasotako landa-garapeneko SIGC sistemako esku-hartzeetako azaleren eta abereen araberrako zuzeneko ordainketak edota urteko ordainketak jasotzen dituzten onuradun guztiei.

## I. ATALA

### BALDINTZA INDARTUAK

52. artikulua.– Kontrol-agintaritza eskudunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko eskumena duen zuzendaritza izango da baldintzak aplikatzeko arduraduna.

2.– Foru-aldundiak izango dira kontrol-erakunde espezializatuak, bakoitza bere lurralde-eremuan, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/83 Legean xedatutakoaren arabera.

53. oinarria.– Baldintza indartuak kontrolatzeko plana.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza eta abeltzaintzako eskumena duen zuzendaritzak baldintza indartuak kontrolatzeko plana ezarriko du, egiaztatzeko ea 35. artikuluan aipatzen diren laguntzak jasotzen dituzten onuradunek betetzen ote dituzten abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuan zehazten diren Kudeaketako Legezko Eskakizunak (KLE) eta Nekazaritzako eta Ingurumeneko Baldintza Egokiak (NIBE).

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko baldintza indartuen kontrol-plana FEGA OAK autonomia-erkidegoekin elkarlanean egindako Estatuko kontrolen planari egokituko zaio, eta erakunde horri jakinaraziko zaio. Plan hori modu bateratuan idatziko dute erakunde ordaintzaileak eta foru-aldundiek, eta urtero berrikusiko da kontrolen emaitzen arabera.

54. artikulua.– Kontrol motak.

1.– Administrazio-kontrolak eta tokian tokikoak egingo dira. Halaber, hala dagokionean, azalerak monitorizatzeko sistema edo antzeko beste teknologia batzuk erabili ahal izango dira.

2.– Kasuan kasuko baldintza indartuen inguruko betekizunen eta arauen arabera, kontrol-sistema sektorialen esparruan egindako kontrolak erabili ahal izango dira, baina ezinbestekoa da kontrol horien irismena eta eraginkortasuna gutxienez ere aurreko apartatuan aipatutako kontrolen bestekoak izatea.

3.– KLE edo NIBEetako batean ez-betetzereen bat dagoela egiaztatzen duen kontrol ofizial oro erakunde ordaintzaileari jakinarazi beharko zaio.

55. artikulua.– Administrazio-kontrolak.

Hala dagokionean, administrazio-kontrolak aplikatu beharko zaizkie arau eta baldintza jakin batzuk bete behar dituzten laguntzen onuradun guzti-guztiei, horiek betetzen ote dituzten egiaztatzeko.

56. artikulua.– Tokian tokiko kontrolak.

1.– Tokian tokiko kontrolak egingo dira. Kontrol horien ehunekoak eta baldintzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduari 83. artikuluan ezartzen dira. Laguntza-eskabideak aurkezten diren ekitaldi berean egingo dira tokian tokiko kontrolak.

2.– Foru-aldundien erantzukizuna izango da lekuan bertan egin beharreko kontrolak egitea, abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuarekin bat etorritik, eta bat etorritik, baita ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailearen eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien arteko lankidetzaren hitzarmenetan ezarritakoarekin, Europako NBEF eta LGENF funtsen kontura finantzatzeko zuzeneko laguntzak eta landa-garapenerako neurriak kudeatzeko jarduerak eskuordetzeari dagokionez. Kontrol horiek, gutxienez, KLE edo NIBE bakoitza edo KLE edo NIBE multzo bakoitza bete behar duten pertsonen ehuneko batari egingo zaizkio.

3.– KLE edo NIBE bakoitza edo KLE edo NIBE multzo bakoitza bete behar duten pertsonen gutxienerako kontrolen ehunekora iristeko, kontuan hartu ahal izango dira NPEPEtik kanpo nekazaritzaren arloko beste araudi baten aplikazioaren ondorioz egiten diren tokian tokiko kontrol ofizialak (kontrol sektorialak), hain zuzen ere hautatutako onuradunen KLEei eta NIBEei buruzko legeriaren arabera egiten direnak. Horretarako, kontrol sektorialen kontrol-aktan zehaztu beharko da akta horiek baliozkoak direla baldintza-kontrolari dagokionez eta beren emaitzek ondorioak izan ditzaketela araudi hau aplikatzean.

## 2. ATALA

### BALDINTZA SOZIALAK

57. artikulua.– Baldintza sozialak.

1.– Lan-arloko indarreko araudi osoa ez ezik, baldintza sozialak bete behar dituzten laguntzen onuradunek abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuaren III. eranskinean langileen enpleguaz, osasunaz eta segurtasunaz xedatzen dena ere bete beharko dute.

2.– Lan-arloko eta arlo sozialeko ardurak dauzkaten agintaritzek, beren legezko eskumenen esparruan, baldintza sozialak betetzen ote diren kontrolatuko dute, aipatutako III. eranskinean xedatzen dena aplikatzen eta betetzen den egiaztatzeko.

## 3. ATALA

### PENALIZAZIOAK EZARTZEKO SISTEMAK

58. artikulua.– Penalizazioak ezartzeko sistemak.

1.– Baldintza indartuak bete behar dituen onuradun batek KLEen eta NIBEen betebeharrak betetzen ez baditu urte natural jakin bateko edozein unetan eta ez-betetze hori zuzenean egotzi ahal bazaio urte horretan laguntza-eskabidea edo ordaintzeko eskaera aurkeztu duen onuradunari, penalizazioa aplikatuko zaio.

2.– 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera penalizazioa ezarriko zaie baldintza sozialak ezarrita dauzkaten laguntzen onuradunei, baldin eta kasuan kasuko urte naturalean ez badituzte betetzen abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuaren III. eranskinean ezartzen diren xedapenak.

3.– Penalizazioak aplikatzeko eskumena duen agintaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailea izango da.

4.– Penalizazioak kalkulatzeko eta aplikatzeko, abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoa beteko da.

5.– Abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuaren 14. artikuluen 4. apartatua eta 19. artikuluen 6. apartatuta aplikatuz, baldin eta penalizazioaren zenbatekoa 100 euro edo gutxiago bada urte natural bakoitzeko, laguntzen onuradunari penalizaziorik ez aplikatzeko aukera egongo da, baina, nolahi ere, jakinaraziko zaio egiaztatu dela ez dituela baldintzak bete eta neurri zuzentzaileak ezarri behar dituela halakorik berriro ez gertatzeko. Ondorengo kontrolen batean ikusten bada ez dela hartu neurri zuzentzaileak, hori kontuan hartuko da berrerortzearen edo iraunkortasunaren ondorioetarako.

## IV. KAPITULUA

### NBEF-AREN KONTURAKO ESKU-HARTZEAK

#### ZUZENEKO ORDAINKETAK

59. artikulua.– Laguntzarako esku-hartzeak: zuzeneko ordainketak.

9. artikuluen arabera, honako hauek dira NBEFaren konturako zuzeneko ordainketa gisa emandako laguntzetarako esku-hartzeak:

- a) Jasangarritasunerako errentarako oinarritzko laguntza (JEOL).
- b) JEOLen osagarria den birbanaketa-laguntza.

- c) Nekazari gazteentzako errentarako laguntza osagarria.
- d) Klimaren eta ingurumenaren aldeko araubideak (eko-araubideak).
- e) Nekazariei lotutako zuzeneko ordainketak.

60. artikulua.– Onuradunak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren zuzeneko ordainketa gisa egindako esku-hartzeen onuradunek 1048/2022 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte horiek jasotzeko (abenduarien 27ko 1048/2022 Errege Dekretua, 2023tik aurrera Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan zuzeneko ordainketen esku-hartzeak aplikatzeari eta betekizun komunak ezartzeari buruzkoa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren eskabide bakarra arautzeari buruzkoa). Hain zuzen ere, II. tituluaren I. eta II. kapituluetan ezartzen dena bete beharko dute, baita III. tituluaren I. kapituluaren I. kapituluaren (1., 2., 3. eta 4. atalak) eta III. kapituluaren (1. eta 2. atalak) ezartzen dena ere, esku-hartze mota bakoitzaren arabera.

61. artikulua.– Deialdiak eta kudeaketa.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen sailaren titularraren agindu baten bidez egingo dira esku-hartzeen deialdiak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera. Laguntza-deialdiak urtero egingo dira, eskaera bakarrerako ezarritako prozeduraren bidez, zeina abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuan araututa baitago.

2.– Deialdiak helbide hauetan argitaratuko dira: <https://www.euskadi.eus/web01-a1pac/eu/> helbidean; <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/> iragarki-taulan, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

3.– Esku-hartzeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko eskumena duen zuzendaritzako organo kudeatzaileek kudeatuko dituzte. Nolanahi ere, horrek ez ditu eragotziko Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailearen eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien arteko lankidetzak hitzarmenen bidez aldundiek eskuordetzaz esleituta dauzkaten eginkizunak, hau da, Europako NBEF eta LGENF funtsen kontura finantzatzeko zuzeneko laguntzen eta landa-garapeneko neurrien kudeaketarako eginkizunak.

62. artikulua.– Ebazpena eta ordainketa.

Foru-aldundiek eskuordetutako eginkizunak amaitu direla jakinarazi eta esku-hartze bakoitzari indarreko kontrol-planaren arabera aplikatu beharreko kontrolak eta egiaztapenak egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularrak laguntza ordaintzea ebatziko du, hala badagokio, erakunde ordaintzailearen zuzendaritzaren arduraduna den aldetik.

## V. KAPITULUA

### NBEF-AREN KONTURAKO ESKU-HARTZEAK

#### ESKU-HARTZE SEKTORIALAK

##### I. ATALA

#### FRUTEN ETA BARAZKIEN SEKTOREA

63. artikulua.– Aintzatespena.

1.– Fruta eta barazkien ekoizleen erakundeak eta fruta eta barazkien sektoreko ekoizleen erakundeek elkarrekin aintzatesteko modua erregulatzen duen araudia honako arau hauetan ezartzen

da: dekretu hau, zuzenean aplikatu beharreko Europar Batasunaren araudia, eta maiatzaren 26ko 532/2017 Errege Dekretua, fruta eta barazkien sektoreko ekoizleen elkarteentzako aintzatespena eta funtzionamendua arautzen dituena.

2.– Fruta eta barazkien ekoizleen erakundeak eta fruta eta barazkien sektoreko ekoizleen erakundeentzako elkarteak aintzatespena, transnazionalak barnean direla, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan badute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean elikagaien industriaren arloko eskumena duen zuzendaritzaren ardura izango da.

3.– Organo horrek honako eginkizun hauek izango ditu, entitate horiei dagokienez:

a) Kontrolak, ebaluazioak eta txostenak egitea, eta, esku-hartzeak irauten duen bitartean, zehazpenak aplikatzea aintzatespenaren eta jardunaren inguruko baldintzak ez betetzeagatik, honako arau hauetan ezarritako eran: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1308/2013 (EB) Erregelamenduaren 154.4 b) artikulua; Batzordearen 2017ko martxoaren 13ko 2017/892 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren 24. eta 26. artikulua; eta dekretu hau.

b) Aintzatespenak etetea eta kentzea.

c) 21.1 artikuluan aipatzen den informazioa baliozkotzea, eta maiatzaren 26ko 532/2017 Errege Dekretuak, fruta eta barazkien sektoreko ekoizleen elkarteentzako aintzatespena eta funtzionamendua arautzen dituenak, 22. artikuluan arautzen dituen komunikazioak egitea.

4.– Aintzatespenen baldintzak eta kategoriak 532/2017 Errege Dekretuaren II., III. eta IV. kapituluetan ezartzen dira (maiatzaren 26ko 532/2017 Errege Dekretua, fruta eta barazkien sektoreko ekoizleen elkarteentzako aintzatespena eta funtzionamendua arautzen dituena).

64. artikulua.– Programa operatiboetarako laguntzak kudeatzea.

1.– Fruta eta barazkien ekoizleen erakundeentzako elkarteentzako programa operatiboetarako laguntzak arautzen dituen araudia honako arau hauetan ezartzen da: dekretu hau, zuzenean aplikatu beharreko Europar Batasunaren araudia eta urriaren 11ko 857/2022 Errege Dekretua.

2.– NPEPEan ezartzen diren laguntzak fruta eta barazkien ekoizleen elkarteentzako soilik jaso ahal izango dituzte. Horretarako, programa operatiboa onartzeko eskabidea aurkeztu beharko diote Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean elikagaien industriaren arloko eskumena duen zuzendaritzari, programa aplikatzen hasi behar den urtearen aurreko urteko irailaren 15erako, gehienez ere.

3.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 51. artikuluan jasotako funts operatiboentzako bidez eratu eta finantzatu diren funts operatiboekin finantzatu dira programa operatiboak.

4.– Aintzatespenetarako ekoizle elkarte baten funts operatibo bat eratzen badu eta programa operatibo baterako onarpena lortzen badu, honako laguntza hauek eskuratu ahal izango ditu:

a) Europar Batasunaren finantza-laguntza bat, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 52. artikuluan ezartzen denaren arabera.

b) Finantza-laguntza nazional bat, baldin eta betetzen badira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 53. artikuluan ezarritako baldintzak.

65. artikulua.– Ebazpena eta ordainketa.

1.– Elikagaien industriren arloko eskumena duen zuzendaritzako titularrak ebazpena emango du programa operatiboa onesteko edo ezesteko, eta horretarako epea, gehienez ere, programa aplikatzen hasi behar den urtearen aurreko urteko abenduaren 15ean amaituko da edo, bestela, arrazoiak azalduz gero, kasuan kasuko urteko urtarrilaren 20an. Epe horretan ebazpenik ematen ez bada, eskabidea baietsizat hartu ahal izango da. Era berean, behin betiko ebazpen-proposamena egiteko eskumena duen organoak proiektuan aldaketak egiteko eskatu ahal izango du. Kasu horretan, proiektua onetsi ahal izateko, aldaketak egin beharko dira. Nolanahi ere, programa operatiboen aldaketa guztiak urriaren 11ko 857/2022 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorri egin beharko dira.

2.– Europar Batasunaren funtsen kontura finantzatzen diren laguntzetan zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontu orokorren kontura finantzatzen direnetan, ordainketa-eskabideak (ordainketa partziala, amaierakoa edo aurrerakina) elikagaien industriren arloko eskumena duen zuzendaritzari aurkeztu behar zaizkio, denak batera, urriaren 11ko 857/2022 Errege Dekretuan ezartzen den epearen barruan.

3.– Europar Batasunaren funtsen konturako laguntzak direla-eta, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean elikagaien industriren arloko eskumena duen organoak, ordaintzeko eskaera aurkezteko epea amaitu eta sei hilabeteko epean, ordaintzeko proposamena eta eraturako bermeei dagokienez jarduteko proposamena –hala bada– bidaliko dizkio erakunde ordaintzailearen zuzendariari. Ordaintzeko proposamen horretan, baimendutako laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, edo, bestela, aurrerakinik edo ordainketa partzialik egin bada, laguntzaren saldoa. Proposamena ikusita, proposamena jaso eta, gehienez ere, hilabeteko epean, erakunde ordaintzailearen zuzendariak ordainketa gauzatzeko ebazpena emango du. Eraturako bermeei dagokienez, erakunde ordaintzailearen zuzendariak dagozkion kudeaketak egingo ditu diruzaintza-arloko eskumena duen sailaren aurrean.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aurrekontu orokorraren konturako laguntzak direla-eta, hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduaren 53. artikuluan arautzen direnak, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, elikagaien industriren arloko eskumena duen organoak laguntza emateko, ukatzeko edota bermeak askatzeko ebazpena emango du, eta, bertan, laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, edo, bestela, aurrerakinik edo ordainketa partzialik egin bada, laguntzaren saldoa.

## 2. ATALA

### MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZAKO ESKU-HARTZEAK

### MAHASTIEN BERREGITURAKETA ETA BIRMOLDAKETA

### UZTA BERDEA

66. artikulua.– Erreferentziako araudia.

Mahastiak berregituratu eta birmoldatzeko eta uzta berderako laguntzak araudi hauetan daude erregulatuta: dekretu honetan, zuzenean aplikatzen diren Europar Batasunaren erregelamenduetan, eta urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuan, zeinaren bitartez Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan mahastizaintzako eta ardogintzako esku-hartze sektoriala arautzen baita (aurrerantzean, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretua).

67. artikulua.– Deialdia eta kudeaketa.

1.– Mahastiak berregituratzeko eta uzta berderako esku-hartzeen deialdia 12. artikuluaaren arabera egikarrituko da, eta urtean behin egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-politika erkidearen arloko eskumena duen sailburuak.

2.– Ustiatagia dagoen lurraldeko foru-aldundiko sail eskudunak –gaiaren arabera– kudeatuko ditu esku-hartzeak.

68. artikulua.– Onuradunak.

Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 3. artikulua ezartzen dituen betekizunak betetzen dituztenek jaso ditzakete 2024-2027 aldiko mahastizaintzako eta ardogintzako esku-hartze sektorialaren esparruko laguntzak.

69. artikulua.– Ebazpena eta ordainketa.

Foru-aldundiek eskuordetu diren eginkizunak amaitu direla jakinarazi eta esku-hartze bakoitzari indarreko kontrol-planaren arabera aplikatu beharreko kontrolak eta egiaztapenak egin ondoren, erakunde ordaintzailearen ardura duen zuzendaritzaren titularrak laguntza ordaintzea ebatziko du, hala badagokio.

### 3. ATALA

#### MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINZAKO ESKU-HARTZEAK

#### INBERTSIOAK

70. artikulua.– Erreferentziazko araudia eta horren aplikazioa.

1.– Inbertsioetarako laguntzak erregulatzen dituen araudia dekretu honetan, zuzenean aplikatzekoa den Europar Batasuneko erregelamenduan eta urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuan ezarritakoa izango da.

2.– Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 20. artikulua 3. apartatua ezarritakoaren ondorioetarako, jardunak hautatu ahal izango dira, laguntzaren xede den inbertsioaren aurrekontuaren zenbatekoa edozein dela ere.

71. artikulua.– Onuradun izateko bete beharreko betekizunak.

Dekretu honen 13. artikuluan eta aurreko artikulua 1. apartatua aipatzen den araudian ezartzen diren baldintzez gain, inbertsioetarako laguntzen onuradun izango dira baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak:

a) Inbertsioa egingo den establezimendua Euskal Autonomia Erkidegoan egotea.

b) Fisikoki upategi bati lotuta ez dauden merkaturatze-proiektuetarako edo Batasuneko beste estatu batean merkaturatzeko proiektuetarako inbertsioen kasuan, eskatzailearen egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan egotea.

72. artikulua.– Deialdiak eta eskabideak.

1.– Urtean behin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-politika erkidearen arloko eskumena duen sailaren titularraren agindu baten bidez, esku-hartze honeta-

rako aurreikusitako laguntzen deialdia egingo da, dekretu honen 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Deialdiaren aginduan eskabideak aurkezteko epea ezarriko da, gutxienez, eta deialdian NBE-Faren kontura emango diren laguntzen guztirako zenbatekoa jakinez gero, hori ere adieraziko da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean elikagaien industriaren arloko eskumena duen zuzendaritzan aurkeztuko da eskabidea.

73. artikulua.– Ebazpena eta ordainketa.

1.– Nekazaritza eta Landa Garapenaren Sektoreko Konferentziak funtsak esleitu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean elikagaien industriaren arloko eskumena duen organoak dirulaguntza emateko ebazpena eman eta jakinaraziko die onuradunei. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, funtsak esleitzeko Sektoreko Konferentziaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 27. artikularekin bat etorritik.

2.– Ukatzeko ebazpenen kasuan –arrazoituak izan beharko dute–, eta laguntza-eskaera ezesten den kasuetan, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote elikagaien industriaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrari. Sei hilabeteko epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskabidea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3.– Aldaketa-eskabideak urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuan ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren ebatziko dira.

4.– Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da ordainketa. Ordainketa partziala edo osoa eskatuz gero, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, organo eskudunak, ordaintzeko eskaera aurkezteko epea amaitu eta sei hilabeteko epean, ordaintzeko proposamena eta eraturako bermeei dagokienez jarduteko proposamena bidaliko dizkio erakunde ordaintzailearen zuzendariari. Ordaintzeko proposamen horretan, baimendutako laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, edo, bestela, ordainketa partzialik egin bada, laguntzaren saldoa. Proposamena ikusita, proposamena jaso eta, gehienez ere, hilabeteko epean, erakunde ordaintzailearen zuzendariak ordainketa gauzatzeko ebazpena emango du. Eraturako bermeei dagokienez, erakunde ordaintzailearen zuzendariak dagozkion kudeaketak egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean diruzaintza-arloko eskumena duen sailaren aurrean.

#### 4. ATALA

##### MAHASTIZAINZA ETA ARDOGINTZAKO ESKU-HARTZEAK

##### ARDOA SUSTATZEA BESTE HERRIALDE BATZUETAN

74. artikulua.– Erreferentziazko araudia eta horren aplikazioa.

Sustapenerako laguntzak erregulatzen dituen araudia dekretu honetan, zuzenean aplikatzeko den Europar Batasuneko erregelamenduan eta urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuan ezarritakoa izango da.



75. artikulua.– Onuradun izateko bete beharreko betekizunak.

Dekretu honen 13. artikuluan finkatutako betekizunez gain, aurreko artikuluan aurreikusitako erreferentziazko araudian ezarritakoak betetzen dituztenak izan ahalko dira onuradun. Ardogintzako industrien kasuan, dagokion erregistroan izena emanda egotea eta datuak eguneratuta izatea. Eskatzailea esportatzaileen elkarte bada edo esportazio partzuergoa bada, horiek osatzen dituzten enpresen 2/3, gutxienez, erregistro horretan inskribatuta egotea.

76. artikulua.– Deialdiak eta eskabideak.

1.– Urtean behin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza-politika erkidearen arloko eskumena duen sailaren titularraren agindu baten bidez, esku-hartze honetan aurreikusitako laguntzen deialdia egingo da, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Deialdiaren aginduan eskabideak aurkezteko epea ezarriko da, gutxienez, eta deialdian NBE-Faren kontura emango diren laguntzen guztirako zenbatekoa jakinez gero, hori ere adieraziko da.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean elikagaien industrien arloko eskumena duen zuzendaritzan aurkeztuko da eskabidea, eskatzailearen zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badago.

77. artikulua.– Ebazpena eta ordainketa.

1.– Nekazaritza eta Landa Garapenaren Sektoreko Konferentziak funtsak esleitu ondoren, elikagaien industrien arloko eskumena duen organoak ebazpena emango du eta onuradunei jakinaraziko die. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, funtsak esleitzeko Sektoreko Konferentziaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 27. artikuluekin bat etorritz.

2.– Ukatzeko ebazpenen kasuan –arrazoituak izan beharko dute–, eta laguntza-eskaera ezesten den kasuetan, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote elikagaien industrien arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrari. Sei hilabeteko epea igaro eta ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek ezetsizat jo ahal izango dute eskabidea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

3.– Aldaketa-eskabideak urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuan ezartzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren ebatziko dira.

4.– Halaber, ordainketa partzialak zein osoak egiteko eskabideak aurkeztu ahal izango dira. Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuaren 70. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da ordainketa. Ordainketa partziala edo osoa eskatuz gero, dagozkion egiaztapenak egin ondoren, elikagaien industrien arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularrak, ordaintzeko eskaera aurkezteko epea amaitu eta sei hilabeteko epean, ordaintzeko proposamena eta eraturako bermeei dagokienez jarduteko proposamena bidaliko dizkio erakunde ordaintzailearen zuzendariari. Ordaintzeko proposamen horretan, baimendutako laguntzaren zenbatekoa zehaztuko da, edo, bestela, ordainketa partzialik egin bada, laguntzaren saldoa. Proposamena ikusita, proposamena jaso eta, gehienez ere, hilabeteko epean, erakunde ordaintzailearen zuzendariak ordainketa gauzatzeko ebazpena emango du. Eraturako bermeei dagokienez, erakunde ordaintzailearen zuzendariak dagozkion kudeaketak egingo ditu diruzaintza-arloko eskumena duen sailaren aurrean.

## 5. ATALA

## ERLEZAINZAKO ESKU-HARTZEA

78. artikulua.– Deialdiak eta kudeaketa.

1.– Erlezaintzako esku-hartzeen urteko deialdia foru-aldundiek egin behar dute, eta deialdian, gutxienez, dekretu honetan ezarritako alderdi guztietatik aplikagarri zaizkionak agertu beharko dira, eta NPEPEan, urriaren 25eko 906/2022 Errege Dekretuan (urriaren 25eko 906/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan erlezaintzako esku-hartze sektoriala arautzen duena) eta Europar Batasunaren arau aplikagarrietan ezartzen dena bete beharko da.

2.– Ustategia dagoen lurraldeko foru-aldundiko sail eskudunak –gaiaren arabera– kudeatuko du erlezaintza-sektoreko esku-hartzea.

79. artikulua.– Onuradunak.

906/2022 Errege Dekretuaren 4. artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztenek jaso ditzakete erlezaintzako esku-hartze sektorialaren esparruko laguntzak (urriaren 25eko 906/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan erlezaintzako esku-hartze sektoriala arautzen duena).

80. artikulua.– Ebazpena eta ordainketa.

Foru-aldundiek eskuordetu diren eginkizunak amaitu direla jakinarazi eta esku-hartze bakoitzari indarreko kontrol-planaren arabera aplikatu beharreko kontrolak eta egiaztapenak egin ondoren, erakunde ordaintzailearen ardura duen zuzendaritzaren titularrak laguntza NBEFaren kontura ordaintzea ebatziko du, hala badagokio.

## VI. KAPITULUA

## LGENF-AREN KONTURAKO ESKU-HARTZEAK

## 1. ATALA

## LGENF-AK ETA FORU-ALDUNDIEK MODU BATERATUAN FINANTZATUTAKO ESKU-HARTZEEN KUDEAKETA

81. artikulua.– Kudeaketa eta deialdiak.

1.– Dekretu honen 10. artikulua 2. apartatuan aipatzen diren esku-hartzeak lurralde historikoetako foru-aldundietako sail eskudunek kudeatu eta kontrolatuko dituzte.

2.– Horretarako, foru-aldundiek egokitzat jotako esku-hartze horien deialdiak eta garatzeko arauak argitaratuko dituzte. Deialdietan edota garatzeko arauetan, dekretu honetan ezartzen diren edukiak agertu beharko dira gutxienez, kasu bakoitzeko esku-hartzeari dagozkionak. Eduki horiek bat etorriko dira NPEPEan eta Europar Batasunaren eta Estatuaren araudi aplikagarrietan ezartzen direnekin.

3.– Laguntzen deialdiak urtero egingo dira. Nolanahi ere, gerta liteke ekitaldi batean esku-hartze batzuen deialdirik ez egitea aurrekontu-arazoengatik edo deialdia eragozten duten bestelako inguruabar batzuegatik.

82. artikulua.– Onuradunak.

Foru-aldundiek deitutako laguntzen onuradunak NPEPEan esku-hartze zehatz bakoitzerako ezarritakoak izango dira, eta dekretu honen 13. artikuluko betekizunak bete beharko dituzte.

83. artikulua.– Ebazpena eta ordainketa.

1.– Esku-hartze bakoitzean indarreko kontrol-planaren arabera egin beharreko kontrolak eta egiaztapenak egin ondoren, foru-organo eskudunek dagokion ebazpena emango dute. Ebazpen horretan, hala badagokio, adieraziko da onuradunari laguntza osoa ordainduko zaiola, bai foru-organoaren aurrekontuen kontura finantzatzen den zatia, bai LGENFaren kontura finantzatzen dena. Onuradunei laguntza osoa ordaindutakoan, foru-organoek erakunde ordaintzaileari eskatuko diote ordain dezala LGENFaren kontura finantzatutako zatia, baldin eta funts horretan foru-organo eskatzailearen aldeko funtsik badago dena delako esku-hartzerako. Esku-hartze baterako LGENF funtsak agortuta badaude, laguntzak Estatuko finantzaketa osagarritzat hartuko dira.

2.– Foru-aldundien ordainketa-eskaeren inguruko egiaztapenak egin ondoren, erakunde ordaintzaileak ordainketa egingo du LGENF funtsen kontura, eta foru-ogasunei emango dizkie haiek aurreratutako diru-kopuruak, esku-hartze bakoitzerako ezarritako finantzaketa bateratuko tasa aplikatuz eta abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuan xedatzen denarekin bat etorritz.

## 2. ATALA

### LGENF-AK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAK MODU BATERATUAN FINANTZATUTAKO ESKU-HARTZEEN KUDEAKETA

84. artikulua.– Kudeaketa eta deialdiak.

1.– Dekretu honen 10. artikulua 3. apartatuan adierazitako esku-hartzeen kudeaketa eta kontrola Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean landa-garapenaren, nekazaritzako elikagaien industriaren, elikagaien kalitatearen eta basoen arloan eskumena duten zuzendaritzei dagokie, unean-unean indarrean dagoen egitura organikoari buruzko dekretuarekin bat etorritz.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen sailaren titularraren agindu baten bidez egingo dira esku-hartzeen deialdiak, hurrengo apartatuetan adierazitako salbuespenekin. Laguntzen deialdiak urtero egingo dira. Nolanahi ere, gerta liteke ekitaldi batean esku-hartze batzuen deialdirik ez egitea aurrekontuaren eskuragarritasunagatik edo deialdia eragozten duten bestelako inguruabar batzuegatik. Agindu horietan, dekretu honetan ezartzen diren edukiak agertuko dira gutxienez, kasu bakoitzeko laguntza-deialdiaren esku-hartzeari dagozkionak. Eduki horiek bat etorriko dira NPEPEan eta Europar Batasunaren eta Estatuaren araudi aplikagarrietan ezartzen direnekin.

3.– 2. apartatuan xedatutakoa gorabehera, ezagutzen transferentziari eta prestakuntza- eta informazio-jarduerei buruzko esku-hartzea Hazi Fundazioak egingo du, Eusko Jaurlaritzaren bitarteko propioa den aldetik, eta kudeaketa-agintaritzaren laguntza teknikoari buruzko esku-hartzea –agintaritza horrek EAEn NPEPEa behar bezala ezartzeko (NPEPEaren indarraldian) beharrezkoak diren ekintzak finantzatzera bideratua– bitarteko propioen bidez edo kontratu publikoak eginez gauzatuko da.

4.– LEADER esku-hartzea dela-eta, partaidetzan oinarritutako tokiko garapenerako estrategien esparruko jardunak finantzatzeko laguntzen deialdiak egingo dituzte estrategia horiek abian jartzeko aurrez hautatu diren toki-ekintzako taldeek. Toki-ekintzako taldeen lankidetzaproiektuen

eta talde horien funtzionamendu-gastuen inguruko jardueren kasuan, ez da laguntza-deialdirik egongo.

85. artikulua.– Onuradunak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak deitutako laguntzen onuradunak NPE-PEan esku-hartze zehatz bakoitzerako ezarritakoak izango dira, eta dekretu honen 13. artikuluko betekizunak bete beharko dituzte.

86. artikulua.– Ebazpena eta ordainketa.

1.– Esku-hartze bakoitzaren esparruan beharrezko kontrolak eta egiaztapenak egin ondoren, eta indarrean dagoen kontrol-planarekin bat etorritik, kasu bakoitzean eskumena duen organoak ebazpen bat emango du. Ebazpen horretan, hala badagokio, laguntza ordaintzea erabakiko du, dagozkion aurrekontuen kargura, eta, gainera, LGENF funtsari dagokion zatia ordaintzeko proposamena egingo dio erakunde ordaintzaileari.

2.– 1. apartatuan aipatzen den ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, eta pertsona horiei ordainduko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuaren kargura finantzatutako laguntzaren zenbatekoa, esku-hartze bakoitzerako aurreikusitako finantzaketa bateratuko tasa aplikatuz.

3.– Behar diren baldintzak eta Batasunaren araudia betetzen ote diren egiaztatzeko egin beharrezko kontrolak egin ondoren, erakunde ordaintzaileak ebazpen bat emango du LGEN-Faren kontura finantzatzen den laguntzaren zatia bakarrik ordaintzeko, eta onuradun bakoitzari laguntza-zati hori ordainduko dio, esku-hartze bakoitzerako ezarritako finantzaketa bateratuko tasa aplikatuz.

### 3. ATALA

#### LANDA-EREMUEN KARAKTERIZAZIOA

87. artikulua.– Landa-eremuak identifikatzeko parametroak.

1.– Landa-entitate hartzen dira EUSTAT Euskal Estatistika Erakundean hala erregistratutako biztanleria-entitate bereziak, lurzorua hirigintza-kalifikazioa gorabehera, baldin eta ezaugarri hauetakoren bat betetzen badute:

a) 2.000 biztanle edo gutxiago izatea;

b) Erroldatutako 2.000 biztanle baino gehiago izatea eta balio erantsi gordin osoaren % 3ko edo gehiagoko nekazaritzako balio erantsi gordina duen udalerrri bateko entitatea izatea.

2.– Landa-eremutzat hartuko dira, halaber, partzoneriak (udalerrien arteko kondominioak), mendiko lurralde-entitate gisa, non ez baita inor bizi; izan ere, horiek ez dute udalerrriaren estatutu juridikorik.

3.– Halaber, hiri-entitateetan landa-eremuak identifikatu ahal izango dira, UDALPLAN-Informazio geografikoaren sistema eta lurralde-datuen bankuan lurzoru urbanizaezin gisa agertzen diren eremuak abiaburutzat hartuta.

88. artikulua.– Landa-eremuak kategorizatzeke irizpideak eta kalteberatasun-mailak.

1.– Landa-eremuen karakterizazioa honako garapen-eremu hauetarako egin da: jarduera ekonomikoaren sustapena eta dibertsifikazioa, eta bizi-kalitatea eta ongizatea.

2.– Zenbait irizpide eta parametro erabili dira landa-eremuen karakterizaziorako garapen-eremu bakoitzean (demografikoak, geografikoak, ekonomikoak eta zerbitzuen eta komunikabideen irisgarritasunaren ingurukoak). Hauek dira:

a) Jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzearen eremuari dagokionez:

- 1.– Errepide nagusietara dagoen distantzia, kilometrotan.
- 2.– Okupazio-tasaren ehunekoa.
- 3.– Zerbitzu-establezimenduen kopurua.
- 4.– Batez besteko maldaren ehunekoa.
- 5.– Prestakuntza-mailaren ehunekoa (lanbide-heziketa eta goi-mailako heziketa).
- 6.– Nekazaritzako balio erantsi gordinaren ehunekoa (nekazaritzako BEGd).
- 7.– Udalerriko biztanleria.

b) Bizi-kalitatearen eta ongizatearen eremuari dagokionez:

- 1.– Lehen hezkuntzako eskoletara dagoen distantzia, kilometrotan.
- 2.– 10.000 biztanletik gorako hiri-entitate batera dagoen distantzia, kilometrotan.
- 3.– Errenta pertsonala, eurotan zenbatuta.
- 4.– Etxebizitza nagusiaren ehunekoa.
- 5.– Elkarteen kopurua.
- 6.– Zerbitzu-establezimenduen kopurua (txikizkako merkataritza eta ostalaritza).
- 7.– Batez besteko maldaren ehunekoa.
- 8.– Udalerriko biztanleria.

89. artikulua.– Arreta bereziko eremuak (ABE).

1.– Udalerri kalteberenak eta larrien daudenak arreta bereziko eremu (ABE) gisa katalogatu dira, bai ekonomiari eta ongizateari dagokienez, bai demografiari eta lehen sektorearekiko mendekotasunari dagokienez.

2.– Arreta bereziko eremu horiek identifikatzeko, irizpide eta parametro hauek erabili dira:

- a) Biztanleriaren bilakaera (%).
- b) Zahartzea (%).
- c) Maskulinitatea (tasa).
- d) Per capita errenta (euro).
- e) BPGd.
- f) Nekazaritzako BEGd (%).
- g) Udalerriko biztanleria.

90. artikulua.– Kalteberatasun-mailak.

88. eta 89. artikuluetan aipatzen diren irizpideen arabera balioak aztertu eta ordenatu ondoren, eta ezarritako esparru bakoitza aintzat hartuta, landa-eremuak 4 kalteberatasun-mailatan sailkatu dira, 1. mailakoak izanik kalteberenak:

a) Arreta bereziko eremuei (ABE) kalteberatasun-maila gorena ezarri zaie (V1), eta garapen-eremuetako bakoitzean sartu dira.

b) Gainerako landa-entitateak V2, V3 eta V4 kalteberatasun-mailetan katalogatu dira. Kalteberatasun-mailak pertzentilen arabera emaitzen banaketari jarraikiz ezarri dira. Kalteberatasun-maila bakoitzari % 33,3 esleitu zaio eremu bakoitzerako eraturako adierazlearen arabera.

c) Hiri-entitateetako landa-eremuak entitate bakartzat jo dira, eta kalteberatasun-maila txikiena esleitu zaie guztiei: V4.

d) Partzonerien kasuan, kontuan hartuta lurralde partekatuak direla eta ez direla udalerrri bakar batekin soilik, baizik eta lurraldearen jabe den herri-komunitatearenak, eta horietan ez dela inor bizi, ezin zaizkie aplikatu aipatutako adierazleak. Beraz, horiei esleitutako kalteberatasun-maila garapen-eremuaren eta eremu horietan garatu nahi diren programen helburuen arabera izango da.

91. artikulua.– Landa-eremuen karakterizazioa eskuratzeko bidea.

Dekretu honetan onesten den landa-eremuen karakterizazioa (4 kalteberatasun-maila, finkatutako eremu bakoitzerako) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Egoitza Elektronikokoan ikus daiteke: <https://www.euskadi.eus/euskadiko-landa-eremuen-karakterizazioa/web01-a2lanits/eu/>

92. artikulua.– Landa-eremuen karakterizazioa berrikustea.

Landa-eremuak bilakatu, garatu eta hazi egiten dira, eta biztanlerian ere aldaketak gertatzen dira. Beraz, faktore horiek berrikusi egin behar dira, eta, berrikusteko prozesu horren ondorioz, baliteke dekretu honetan garapen-eremuetarako onetsitako kalteberatasun-mailak edo EAEko entitateen lurralde-oinarria aldatzea. Aldaketarik izanez gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen sailaren titularraren agindu baten bidez. Halaber, garapen-eremu berrien analisiaren eta karakterizazioaren ondoriozko aldaketa guztiak ere argitaratuko dira.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Arau-erreferentziak eta erreferentzia organikoak.

1.– Agertzen diren Europako, Estatuko eta EAEko arauen aipamenak (eranskinak barne) aldiari-aldiari horiek ordezkatzeko edo aldatzeko dituzten arauak buruzkoak direla ulertu behar da.

2.– Halaber, ulertu behar da sailen eta administrazio-organoen aipamenak honako hauei buruzkoak direla: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailak sortzen, ezabatzen eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta eremuak finkatzen dituen indarreko dekretuaren arabera gai bakoitzaren gaineko eskumena duen sailari buruzkoak eta egitura organikoaren eta funtzionalaren arabera eskumena duen zuzendaritzari buruzkoak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Helbide elektronikoak.

Helbide elektronikoetarako estekak unean-unean ordezkatzeko edo aldatzeko dituztenetara eginda daudela ulertuko da.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Presentzia orekatua.

Dekretu honetan jasota dauden organoetan, ahaleginak egingo dira emakumeen eta gizonen presentzia orekatua egon dadin, eta eskusiboki postuari lotuta ez dauden edo karguaren

araberakoak ez diren ordezkartzen arteko oreka hori indartuko da, plan honen 9.1.5 apartatuan xedatutakoaren arabera: «Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren administrazio instituzionaleko kide anitzeko organoentzako jarduera-plana». Gobernu Kontseiluaren 2020ko uztailaren 7ko Erabakiaren bidez onartu zen plan hori.

**LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.**– Esku-hartze berrien publikotasuna.

9. eta 10. artikuluetan aipatzen diren esku-hartzeak gorabehera, nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen sailaren titularraren agindu baten bidez, argitara emango dira programa-zioak irauten duen bitartean EAEn ezartzeko hautatzen diren esku-hartze berriak. Aipatutako publikotasuna laguntzen deialdia egin aurretik aplikatuko da, eta dekretu honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezartzen diren preskripzioak aplikatuko zaizkie laguntzei.

**XEDAPEN IRAGANKORRA.**– Euskadiko Landa Garapenerako Programa 2015-2020: luzapena.

Xedapen indargabetzaile bakarra eragotzi gabe, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak finantzatzen dituen Euskadiko Landa Garapenerako Programako (2015-2020) esku-hartzeen programen iraunaldia honen arabera luzatu ahal izango da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko abenduaren 23ko 2020/2220 (EB) Erregelamendua, zeinaren bitartez zenbait xedapen iragankor ezartzen baitira Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) eta Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) laguntzarako, 2021. eta 2022. urteetan; eta zeinaren bitartez aldatu egiten baitira ondorengo erregelamenduak: 1305/2013 (EB), 1306/2013 (EB) eta 1307/2013 (EB), errekurtsoei eta erregelamenduaren aplikazioari dagokionez, 2021. eta 2022. urteetan; eta 1308/2013 (EB) Erregelamendua, errekurtsoei eta laguntza horren banaketari dagokionez, 2021. eta 2022. urteetan.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA.**– Arauak indargabetzea.

Dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetuta geratzen dira honako erregelamendu-xedapen hauek eta dekretu honetan araututako arloan dekretu honen aurka doan beste edozein xedapen:

a) 20/2016 Dekretua, otsailaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek garatu eta aplikatzekoa: Nekazaritza Politika Erkidearen (NPE) zuzeneko laguntzen erregimenak, Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema (SIGPAC) eta laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak.

b) 30/2010 Dekretua, urtarrilaren 26koa, Europako Erkidegoak fruten eta barazkien arloa arautzeko sortuak dituen erregelamenduak eta erregelamendu horietatik datorren laguntza-sistema Euskal Autonomia Erkidegoan nola garatu eta aplikatu arautzen duena.

c) 227/2014 Dekretua, abenduaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan mahastizaintza eta ardo-gintzaren sektorea laguntzeko Europako Erkidegoak emandako neurriak garatu eta aplikatzekoa.

d) 43/2017 Dekretua, otsailaren 14koa, zeinaren bidez 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programan jasota dauden laguntzen esparru-araudia ezartzen baita.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.**– Abenduaren 9ko 275/2020 Dekretuaren aldaketa, zeinaren bidez ezartzen baita Nekazaritzako Europako Berme Funtsak (NEBF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamendu-araubidea Euskal Autonomia Erkidegoan.

1.– Aldatu egingo da 1. artikulua 2. apartatua. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«2.– Nekazaritza-politika erkidearen arloan eskumena duen saila da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailea».

2.– 7 bis artikulua gehituko da, eta honela geratuko da idatzita:

«7 bis artikulua.– Erakunde Ordaintzailearen Koordinazio Batzordea.

1.– Lehen zutabeko eta bigarren zutabeko eremuen arteko lankidetzaz zuzena eta eraginkorra bermatzeko eta EAeko erakunde ordaintzailearen egitekoak gauzatzeko, erakunde ordaintzailearen koordinazio-batzordea sortzen da, zeinak lantalde gisa jardungo baitu. Honako hauek osatuko dute:

- a) NBEFaren zuzeneko ordainketen ardura duen zuzendaritzaren ordezkari bat.
- b) NBEFaren esku-hartze sektorialen ardura duten zuzendaritzen ordezkari bat.
- c) LGENFaren landa-garapenerako esku-hartzeen ardura duten zuzendaritzen ordezkari bat.
- d) Erakunde ordaintzailearen ordainketak exekutatzeko funtzioaz arduratuko den pertsona bat.
- e) Foru-aldundi bakoitzean nekazaritzaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren ordezkari bat.
- f) Erakunde ordaintzailearen barne-auditoria zerbitzuaren ordezkari bat.

2.– Koordinazio-batzordea erakunde ordaintzailearen ardura duen pertsonaren ekimenez bildu ahal izango da, edota batzordeko edozein kideren ekimenez, eta bileretara kasuan kasuko gaiaren arabera bidezkatat jotzen diren kudeaketa-organoak edo beste administrazio-unitate batzuk edo bestelako erakundeak gonbidatu ahal izango dira.

3.– Batzorde horren eginkizun nagusia izango da sortzen diren gorabeherak aztertzea eta neurri zuzentzaile egokiak proposatzea, honako gai hauei dagokienez:

- a) NPEPE laguntzen kontrolen plan autonomikoa aztertzea, kontrolatzea eta jarraipena egitea.
- b) Laguntzako esku-hartze guztien prozedura-eskuliburuak egiten eta eguneratzen direla bermatzea.
- c) Esku-hartze guztien adierazleen jarraipena egitea eta errendimenduaren urteko txostena behar bezala egiten dela ziurtatzea.
- d) NPEPEan sartutako laguntzak kontrolatzeko edo ordaintzeko faseetan sortzen diren gorabeherak partekatzea eta horietarako konponbideak planteatzea.
- e) Koordinazio-erakunde gisa jardutea Europar Batasuneko erakundearen eta ziurtapen-erakundearen auditoretzen ikerketei dagokienez NPEPEaren esparruan, informazioa zentralizatzea eta horiei emandako erantzunak koordinatzea.

f) Erakunde ordaintzaileari egotz dakioken beste edozein gai –Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren 9. artikulua araberako (nekazaritza politika erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena) eta abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretuaren 9. artikulua araberako (Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) gobernantza arautzen duena)–, baldin eta NPEPEaren esparruan batzordea osatzen duten administrazio-organoen arteko koordinazioa eskatzen badu.

4.– Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea betez, bermatu egingo da Jarraipen Batzordeko partaideek nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko duten eskubidea».



2024ko ekainaren 11, asteartea

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Garatzeko eta egokitzeko eskumena.

Ahalmena ematen zaio nekazaritza politika erkidearen arloko eskumena duen sailburuari, agindu bidez eman ditzan behar diren xedapenak, dekretu hau garatzeko eta Europako araudian egon daitezkeen aldaketa teknikoetara eta, hala badagokio, Estatuaren oinarritzko legeriara egokitzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko maiatzaren 28an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

## I. ERANSKINA

## A) Nekazaritza Politika Erkideari buruzko Europar Batasuneko araudia.

Plan estrategikoei buruzko arauak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen esparruan estatu kideek egin beharreko plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen (NPEaren plan estrategikoak) –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dituen.

<https://www.boe.es/doue/2021/435/L00001-00186.pdf>

Finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzko arauak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen finantzaketari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa eta 1306/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen duena.

<https://www.boe.es/doue/2021/435/L00187-00261.pdf>

Merkatuen antolaketa erkideari buruzko arauak. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2117 Erregelamendua (EB), honako hauek aldatzen dituen: 1308/2013 Erregelamendua (EB), nekazaritza-produktuen merkaten antolaketa erkidea sortzen duena; 1151/2012 Erregelamendua (EB), nekazaritzako produktuen eta elikagaien kalitate-arau-bideei buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 251/2014 Erregelamendua (EB), mahastizaintza eta ardogintzako produktu aromatizatuen adierazpen geografikoen definizio, deskribapen, aurkezpen, etiketatu eta babesari buruzkoa, eta 228/2013 Erregelamendua (EB), nekazaritza sektorean Europar Batasuneko eskualde ultraperiferikoen aldeko neurri espezifikoak ezartzen dituen.

<https://www.boe.es/doue/2021/435/L00262-00314.pdf>

Aplikatu beharreko erregelamendu erkideak.

Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/126 (EB) Erregelamendu Delegatua, zeinaren bitartez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 (EB) Erregelamendua osatzen baita, estatu kideek, erregelamendu horren arabera, 2023-2027ko NPEaren plan estrategikoetan zehaztutako esku-hartze mota jakin batzuen baldintza osagarriei dagokienez, eta nekazaritza eta ingurumen baldintza egokietako (NIBE) 1. arauaren inguruko proportzioaren arauari dagokienez.

<https://www.boe.es/doue/2022/020/L00052-00094.pdf>

Batzordearen 2021eko abenduaren 7ko 2022/127 (EB) Erregelamendu Delegatua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua osatzen duena erakunde ordaintzaileei eta beste organo batzuei, finantza-kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilerari dagokienez.

<https://www.boe.es/doue/2022/020/L00095-00130.pdf>

Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/128 (EB) Betearazpen Erregelamendua, zeinaren bidez ezartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2116 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak gai hauei dagokienez: erakunde ordaintzaileak eta beste organo batzuk, finantza-kudeaketa, kontuen likidazioa, kontrolak, bermeak eta gardentasuna.

<https://www.boe.es/doue/2022/020/L00131-00196.pdf>

Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 (EB) Erregelamenduari jarraikiz olio-haziei, kotoiari eta ardogintzako azpiproduktuei dagozkien esku-hartze motetarako arauak ezartzen dituen, bai eta Batasunaren laguntzarekin eta NPEaren plan estrategikoekin lotutako informazio-, publizitate- eta ikusgarritasun-arloko betekizunetarako ere.

<https://www.boe.es/doue/2022/020/L00197-00205.pdf>

Batzordearen 2023ko urtarrilaren 18ko 2023/130 (EB) Betearazpen Erregelamendua, zeinaren bidez arauak ezartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 (EB) Erregelamendua aplikatzeko, urteko errendimenduari buruzko txostenaren aurkezpenari dagokionez.

<https://www.boe.es/doue/2023/017/L00077-00083.pdf>

Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2021/2289 (EB) Betearazpen Erregelamendua, zeinaren bidez xedapenak ezartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 (EB) Erregelamendua aplikatzeko NPEaren plan estrategikoen edukiak aurkezteko moduari eta informazioa segurtasunez trukatzeko sistema elektronikoari dagokienez.

<https://www.boe.es/doue/2021/458/L00463-00485.pdf>

Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2021/2290 (EB) Betearazpen Erregelamendua, zeinaren bidez arauak ezartzen baitira 2021/2115 (EB) Erregelamendua I. eranskinean ezarritako betearazpen-adierazle eta emaitza-adierazle komunak kalkulatzeko metodoei buruz (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamendua, nekazaritza politika erkidearen esparruan estatu kideek egin behar dituzten plan estrategikoei buruzko –NPEaren plan estrategikoak– laguntzari buruzko arauak ezartzen dituen –Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta– eta 1305/2013 (EB) Erregelamendua eta 1307/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen dituen).

<https://www.boe.es/doue/2021/458/L00486-00493.pdf>

Batzordearen 2022ko irailaren 6ko 2022/1475 (EB) Betearazpen Erregelamendua, zeinaren bidez xedapenak ezartzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/2115 (EB) Erregelamendua aplikatzeko NPEaren plan estrategikoen ebaluazioari eta jarraipenerako eta ebaluazioari buruzko informazioa emateari dagokienez.

<https://www.boe.es/doue/2022/232/L00008-00036.pdf>

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamendua, zeinaren bitartez ezartzen baitira Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Plus Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Bidezko Trantsizio Funtsari eta Itsasoko, Arrantzako eta Akuikulturako Europako Funtsari buruzko xedapen komunak, bai eta funts horietarako eta honako hauetarako finantza-arauak ere: Asilo, Migrazio eta Gizarteratzeko Funtsa, Barne Segurtasuneko Funtsa eta Mugak eta Bisatuen Politika Kudeatzeko Laguntza Finantzariako Tresna (artikulu batzuei aplikatzen zaizkie).

<https://www.boe.es/doue/2021/231/L00159-00706.pdf>

B) Nekazaritza Politika Erkideari buruzko Estatuko oinarriko araudia.

NPE 2023-2027 kudeatzeko sistema ezartzen duen legea. Abenduaren 23ko 30/2022 Legea, Nekazaritza Politika Erkidea kudeatzeko sistema eta hari lotutako beste gai batzuk arautzen dituen.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-22127>

Laguntzen gobernantzari, kudeaketari eta kontrolari buruzko arauak. Ustiatzearen informazio sistema (SIEX) ere hemen sartzen da, Administrazioak ustiatzei buruz bilduta daukan informazio guztia biltzen duen tresna bakar gisa.

Abenduaren 27ko 1046/2022 Errege Dekretua, Espainiako Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGF) gobernantza arautzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-23046-consolidado.pdf>

Abenduaren 27ko 1047/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruko esku-hartzeak eta beste laguntza batzuk kudeatzeko eta kontrolatzeko sistema arautzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-23047>

Abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen eta arautzen baitira Nekazaritza eta Abeltzaintza Ustiatzearen eta Nekazaritza Ekoizpenaren Informazio Sistema, Nekazaritza Ustiatzearen Erregistro Autonomikoa eta Nekazaritza Ustiatzearen Koaderno Digitala.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-23054-consolidado.pdf>

Laguntzak eskuratzeko betekizunak eta baldintzak ezartzen dituzten arauak. Hain zuzen ere, baldintzak, laguntza-eskubideak, NPEPEko esku-hartzeak eta esku-hartze sektorialak.

Abenduaren 27ko 1045/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkidearen esparruan jasagarritasuna bultzatzeko errentaren oinarritzko laguntzaren eskubideei buruzkoa.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-23045>

Abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretua, 2023tik aurrera Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan zuzeneko ordainketen esku-hartzeak aplikatzeari eta betekizun komunak ezartzeari buruzkoa eta kudeaketa- eta kontrol-sistema integratuaren eskabide bakarra arautzeari buruzkoa.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-23048>

Abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretua, zeinaren bitartez ezartzen baita zer arau erabiliko diren Nekazaritza Politika Erkidearen esparruko laguntzen onuradunek bete behar dituzten baldintza sozialak eta indartuak aplikatzeko, baldin eta zuzeneko ordainketak, landa-garapenerako urteko ordainketa jakin batzuk eta Urrun eta Uharteetan egoteagatiko Aukera Espezifikoen Programaren ordainketak (POSEI) jasotzen badituzte.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-23049-consolidado.pdf>

Sektoreko arauak (frutei eta barazkiei, ardoari eta erlezaintzari eragiten dietenak).

Urriaren 11ko 855/2022 Errege Dekretua, beste errege-dekretu hau aldatzen duena: maiatzaren 26ko 532/2017 Errege Dekretua, Fruta- eta barazki-sektoreko ekoizleen elkarleen aintzatespena eta funtzionamendua arautzen dituena.

<https://www.boe.es/boe/dias/2022/10/12/pdfs/BOE-A-2022-16584.pdf>

Urriaren 11ko 856/2022 Errege Dekretua, beste errege-dekretu hau aldatzen duena: irailaren 21eko 1179/2018 Errege Dekretua, Fruta- eta barazki-sektoreko ekoizleen elkarleen funts eta programa eragileak arautzen dituena.

<https://www.boe.es/boe/dias/2022/10/12/pdfs/BOE-A-2022-16585.pdf>

Urriaren 11ko 857/2022 Errege Dekretua, Fruta- eta barazki-sektoreko ekoizleen elkarteen eta haien antolakundeen funts eta programa eragileak arautzen dituena, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esku-hartze sektorialaren esparruan.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-16586-consolidado.pdf>

Urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan mahastizaintzako eta ardogintzako esku-hartze sektoriala arautzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-17475-consolidado.pdf>

Urriaren 25eko 906/2022 Errege Dekretua, Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan erlezaintzako esku-hartze sektoriala arautzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2022-17476>

Urtarrilaren 24ko 32/2023 Errege Dekretua, errege-dekretu hau aldatzen duena: urriaren 29ko 1338/2018 Errege Dekretua, mahastizaintzako ekoizpen ahalmena arautzen duena.

<https://www.boe.es/boe/dias/2023/01/25/pdfs/BOE-A-2023-2024.pdf>

Nekazaritzako jardueraren zenbait esparru arautzen dituzten arauak, jarduera-sektoreen araberako aplikatzen direnak. Ongarriei, produktu fitosanitarioei, antibiotikoei, nitratoei eta abereen garraioari buruzko arauak.

Urtarrilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretua, nekazaritza-jatorria duten nitratoek eragindako kutsadura lausoaren aurka urak babesteari buruzkoa.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-860-consolidado.pdf>

Azaroaren 29ko 992/2022 Errege Dekretua, abeltzaintza-intereseko espezieetan antibiotikoen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-21136-consolidado.pdf>

Azaroaren 29ko 990/2022 Errege Dekretua, animaliak garraiatzean bete beharreko osasun- eta babes-arauei buruzkoa.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-19912-consolidado.pdf>

Abenduaren 27ko 1050/2022 Errege Dekretua, beste errege-dekretu hau aldatzen duena: irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretua, produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena.

<https://www.boe.es/boe/dias/2022/12/29/pdfs/BOE-A-2022-23051.pdf>

Abenduaren 27ko 1051/2022 Errege Dekretua, laborantzako lurzoruen nutrizio jasangarrirako arauak ezartzen dituena.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-23052-consolidado.pdf>

Penalizazioei buruzko arauak.

Otsailaren 28ko 147/2023 Errege Dekretua, zeinaren bidez Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoan jasotako esku-hartzeetan zigorak aplikatzeko arauak ezartzen baitira, eta

2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Erkidea Espainian aplikatzearekin lotutako zenbait alderdi arautzen dituzten errege-dekretu batzuk aldatzen baitira.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2023/BOE-A-2023-5370-consolidado.pdf>

Animalien ongizateari buruzko araudia. Martxoaren 7ko 159/2023 Errege Dekretua, zeinaren bidez xedapenak ezartzen baitira animalien ongizatearen arloko kontrol ofizialei buruzko Europar Batasunaren araudia Espainian aplikatzeko, eta zenbait errege-dekretu aldatzen baitira.

<https://www.boe.es/buscar/pdf/2023/BOE-A-2023-6083-consolidado.pdf>

## II. ERANSKINA

### EUROPAR BATASUNAREN IKURRA

Batzordearen 2021eko abenduaren 21eko 2022/129 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren II. eranskinean ezartzen denaren arabera, Europar Batasunaren ikurra honela erabili behar da NPEPEko laguntzei dagokienez:



1.– Ikurra nabarmenduta agertu beharko da herritarrei jardunen berri emateko prestatzen diren komunikazio-material guztietan, hala nola produktu inprimatuetan eta digitaletan, webguneetan eta horien sakelakoetarako bertsioetan.

2.– Ikurraren ondoan honako adierazpen hauetako bat agertu behar da, laburtu gabe: «Europar Batasunak finantzatua» edo «Europar Batasunak modu bateratuan finantzatua».

3.– Ikurrarekin batera erabili beharreko letra-tipoa honako hauetako bat izan daiteke: Arial, Auto, Calibri, Garamond, Trebuchet, Tahoma, Verdana edo Ubuntu. Ezin da erabili letra etzanik, ez azpi-marrarik, ez bestelako ezein efekturik.

4.– Testuaren kokapenak ez dio inolako eragozpenik egingo ikurrari.

5.– Letraren tamaina ikurraren tamainarekiko proportziozkoa izango da.

6.– Letraren kolorea urdin reflexa, beltza edo zuria izan daiteke, atzealdearen arabera.

7.– Ikurra ezin da aldatu, ez eta inolako beste elementu grafikorekin edo testurekin konbinatu ere. Ikurraz gainera beste logotiporen bat ere agertzen bada, ikurra logotiporik handienaren bestekoa izan beharko da gutxienez, garaieran edo zabaleran. Ikurraz gain, ez da beste adierazgarri bisualik edo logotiporik erabiliko Batasunaren laguntzaren berri emateko.

8.– Toki berean zenbait jarduketa egiten badira finantza-tresna beraren edo zenbaiten laguntzarekin, edo jarduketa jakin baterako finantzaketa osagarria ematen bada geroago, gutxienez plaka edo kartel bat jarriko da.